

196. araua

Euskara Batuaren Ortotipografia (EBO)

EBO (I). Laburtzapenak: laburdurak eta siglak

(Euskaltzaindiak data eta toki hauetan onartua: 2022ko irailaren 30ean, Iruñean,
2022ko urriaren 28an, Gasteizen, eta 2023ko otsailaren 24an, Bilbon)

AURKIBIDEA

Laburtzapenak

- 1 Sarrera
- 2 Laburtzapen grafikoak
- 3 Laburtzapen grafikoak komunikazio-teknologia berrietan
- 4 Laburtzapen-motak
- 5 Laburtzapenak euskaraz. Atzera begira

Laburdurak

- 1 Laburdurak zer diren
- 2 Laburdurak nola irakurtzen diren
- 3 Laburdura pribatu edo pertsonalak eta laburdura publiko edo konbentzionalak
- 4 Laburdurak puntuz amaitzen dira
- 5 Erabilera
 - 5.1 Premiarik gabe, ez sortu laburdurarik
 - 5.2 Beste erabilera-aholku batzuk: saihestu beharrekoak
 - 5.2.1 Laburdura bati esanahi bakarra esleitu behar zaio
 - 5.2.2 Esanahi bati laburdura bakarra esleitu behar zaio
- 6 Laburdurak sortzeko bideak
 - 6.1 Ebaketa: eskuinetiko ebaketa
 - 6.1.1 Eskuinetiko ebaketaz osatutako laburdurak kontsonantez bukatu behar du
 - 6.1.2 Silaba desberdinetako elkarren ondoko kontsonanteen artean ez da ebaki behar

6.1.3 Laburdurak kontsonantez bukatu beharraren salbuespenak

6.2 Kontrakzioa: trinkotzea

7 Marratxoak eta zuriuneak laburdura konplexuetan

8 Zenbat hitz adierazpenean, hainbat hitz-zati haren laburduran

9 Plurala

10 Letra larriak eta xeheak laburdurretan

11 Letra etzana laburdurretan

12 Laburduraren puntua eta gainerako ortografia-markak

12.1 Laburduraren ondoko puntua

12.2 Laburduraren ondoko etenpuntuak

12.3 Laburduraren ondoko koma, puntu eta koma eta bi puntuak

12.4 Laburduraren ondoko parentesia, marra luzea eta komatxoak

13. Laburdurak esaldiaren hasieran

14 Laburdurak ez du izan behar lerroko hitz bakarra

15 Laburdura ez da bi testu-lerrotan banatu behar

16 Laburdura eta hari dagokion terminoa ez dira bi lerrotan banandu behar

17 Laburdurak eta kasu-markak

17.1 Marratxorik ez da behar

17.2 Kasu-marka jartzeko, laburtu gabeko hitza hartzen da kontuan, ez laburdura

17.3 Kasu-markaren bat erabiliz gero, mugatzailea ere idazten da

18 Sigla eta laburdura elkarturik

19 Laburdura-zerrenda

19.1 Esanahia > laburdura

19.2 Laburdura > esanahia

Siglak

1 Siglak zer diren

2 Akronimoak zer diren

3 Sigla: laburtzapen-motarik ugariena, erabiliena eta emankorrena

4 Siglak noiz eta nola erabili

- 5 Euskal siglak eta erdal siglak. Siglak noiz itzuli
- 6 Sigla alfanumerikoak, sigla bereziak eta elkartuak
 - 6.1 Sigla alfanumerikoak
 - 6.2 Sigla bereziak
 - 6.3 Sigla elkartuak
 - 6.4 Sasisiglak
- 7 Siglak hitzak dira (laburdurak ez)
 - 7.1 Siglak hitz eratorrietan eta hitz-elkarteetan
- 8 Siglak hitz arrunt bihur daitezke: lexikalizazioa
- 9 Zenbat letra izan ditzake siglak?
- 10 Sigla berriak eratzean kontuan hartu beharrekoak
- 11 Siglak punturik gabe eta zuriunerik gabe idazten dira
- 12 Letra larriak eta xeheak sigletan
 - 12.1 Letra guztiak larriz. Beti?
 - 12.2 Letraka irakurtzen diren sigletan, letra guztiak larriz idazten dira
 - 12.3 Silabaka irakurtzen diren sigletan, luzeraren arabera
 - 12.4 Letra xehez eta larriz osatutako siglak
- 13 Siglak nola irakurtzen diren
 - 13.1 Irakurketa silabikoa
 - 13.2 Letrakako irakurketa
 - 13.3 Irakurketa mistoa
 - 13.4 Irakurtzeko zalantzak
- 14 Siglak izendapen arrunt edo izendapen berezi bat ordezkatu dezake
- 15 Siglek kasu-markak nola hartzen dituzten
 - 15.1 Zeri erreparatu: siglari ala siglak ordezkatzeko duenari?
 - 15.2 Siglari kasu-marka jartzeko kontuan hartu beharreko hiru puntuak
 - 15.3 Kasu bereziak: *-a* letraz amaitutako siglak
 - 15.4 Pluraleko adierazpen berezien siglek kasu-markak nola hartzen dituzten
 - 15.5 Noiz erabili behar da marratxoa siglaren eta kasu-markaren artean?
- 16 Siglak letra etzanez?

17 Sigla bi testu-lerrotan banatua

18 Laburduratik siglara: sozietate-moten laburtzapenak

19 Siglen erabilera arau juridikoetan

19.1 Lege, tratatu, kode eta gisakoen siglak

19.2 Errege-dekretu, foru-arauen eta kideko arauen izen arrunten siglak

19.2.1 Arau-moten siglak

19.2.2 Arau-moten siglak arau jakinetan: esaldian

19.2.3 Arau-moten siglak arau jakinetan: esalditik kanpo

Laburtzapenak

1 Sarrera

Laburtasunerako joera edo ahaleginik txikienerako joera hizkuntzaren beraren izaeran dago. Hizkuntzaren funtzio nagusia komunikazioa da; horregatik, erosotasuna eta ahaleginik txikiena bilatzen dira mezua bidaltzeko eta deskodetzeko. Ekonomia linguistikoaren printzipioa da, eta joera —edo lege— orokor bat. Printzipio horrek dio hiztunok biderik laburrena aukeratzeko joera dugula zerbait adierazi behar dugunean; fenomeno hori berezkoa da hiztunetan, eta hizkuntzaren arlo batean baino gehiagotan gertatzen da.

Ahaleginik txikienaren printzipio horrek azaltzen du zergatik jotzen duten gazteek, adibidez, matea esatera matematika esan beharrean (hitza laburtzea) edo fikia esatera fisika eta kimika esan beharrean. Izango du zerikusia gazteen argotarekin, argotean ere laburtasuna gailentzen baita, baina baita argotetik kanpo ere: adibidez, elektroa, kimioa, polioa eta narkoa esaten dugu, laburturik, elektrokardiograma, kimioterapia, poliomielitisa eta narkotrafikatzaile hitz luzeak direlako.

Izenez harago, izendapen konplexuak laburtzera ere jotzen dugu. Adibidez, kafe ebakia sintagma (izen batez eta adjektibo batez osatua) ebakia formara laburtzen dugu (hemen duzu zure ebakia; bi ebaki eta huts bat); hala, ebaki hitzak (adjektiboa) beste kategoria bat eskuratu du (izena), eta beste adiera bat (ebakia = kafe ebakia).

Hitzak laburtuz sortutako neologismo batzuk ez dira lagunarteko hizkeratik pasatzen, baina beste laburtze batzuk, erabiliaren erabiliaz, orokortu egiten dira, eta haien jatorrian zegoen hitza ordeztara ere iristen dira zenbaitetan; hau da, hasieran laburtze fonikoak baino ez direnak (testu formaletan agertzen ez direnak) lexikalizatu egiten dira, eta, ondorioz, lexiko arrunteko hiztegiatara iristen dira. Adibidez, autobus hitzetik bus, biolontxelotik txelo, estereofonikotik estereo, mikrofonotik mikro, pornografiatik edo pornografikotik porno, zinematografotik zinema, zoologikotik zoo eta abar.

Hitzaren gorputz fonikoa laburtuz (hitzaren amaiera [zoologiko → zoo] edo hasiera [autobus → bus] ezabatuz) sortutako hitz berri horiek ahozkoan sortuak dira; hau da, ez dira laburtzapen grafikoak, ez dira idazkera-prozedura baten emaitza. Sorkuntza lexikoak dira, eta ez dagozkio ortotipografiari.

2 Laburtzapen grafikoak

Ahal den informaziorik handiena ahal den espaziorik txikienean ematea eta errepikapen gogaikarriak saihestea. Hori da laburtzapen grafikoen helburua.

Honela dio *Euskaltzaindiaren Hiztegiak*:

laburtzapen

1 iz. Hitz edo sintagma bat era laburtuan adieraztea; horrela adierazten den hitza, adibidez sigla, akronimoa edo laburdura.

Laburtzapen grafikoak unitate lexikoak —hitzak zein adierazpen konplexuak— modu laburtuan adierazteko formak dira, printzipioz adierazpen grafikorako pentsatuak. Haien helburua bikoitza da:

Batetik, idazlearen erosotasuna lortzen da, zeren eta, errepikatzen diren hitzak laburtuz gero, tekla gutxiago sakatu behar baitira idazteko.

Bestetik, irakurlearen erosotasuna lortzen da, zeren eta, hitzei letra-multzoka antzematen zaienez (linguistika kognitiboaren arabera, lau letraz osatutako multzoak bereizten ditugu hitzak irakurtzean), azkar identifikatzen baitira tamaina hori gainditzen ez duten laburtzapenak. Horregatik, hitz bat edo adierazpen konplexu bat ordezkatzeko duen laburtzapen bat, erabiltzearen poderioz, laburtzapen grafiko konbentzional bihurtzen denean, berehala ezagutzen du irakurleak, laburtzapenaren jatorrian dagoen hitza edo adierazpen konplexua ezagutuko lukeen baino lehenago.

Antzina, laburtzapen grafikoek bazituzten beste helburu batzuk, hala nola idazteko euskarrian espazioa aurrezteak (espazio berean hitz gehiago sartu ahal izatea, eta, horrenbestez, larruki, ohol edo paper gutxiago behar izatea) edo lerroen luzera

doitzea. Gaur egun, ordea, erabilera horiek ez dute zentzurik testu digitaletan, baina prentsa idatzian, adibidez, badute funtzio hori orain ere.

3 Laburtzapen grafikoak komunikazio-teknologia berrietan

Komunikazioaren teknologia berriak aldaketa sakonak eta azkarrak eragiten ari dira gizartean. Eta aldaketa horiek idazkerara ere iritsi dira. Hala, komunikazio-modu berrietarako idazkera-molde berriak sortu dira: komunikazio digitalerako moldeak. Bi esparrutan garatu dira: lagunartekoan (txatak eta sare sozialak, hala nola WhatsApp, Twitter, Instagram eta abar; bai eta, zenbaitetan, posta elektronikoa ere) eta arlo profesionalean (kazetaritza, adibidez) edo akademikoan (blogak, komunikabide digitalak eta abar). Bigarren esparru horretan, hizkuntza-arau orokorrak bete behar dira, gainerako testu orokorretan bezala; egia da, dena dela, haietako batzuetan formalitatea aski maila apalekoa dela eta onargarriak gerta daitezkeela zenbait lizentzia.

Lagunarteko esparrua, berriz, ahozko elkarrizketara hurbiltzen da, eta formalitateak atzean utzi ohi dira. Gainera, berehala erantzun beharrak berak bultzatzen du informalitate horretara, bai eta, kanal batzuetan, karaktere-kopurua mugatua izateak ere. Horregatik, euskarri digital berri horietan ohikoa da laburtzapenetara jotzea. Hitzak, edozein hitz, laburtu egiten dira laburdura-punturik erabili gabe edo nahitaez letra larriak erabili gabe, hau da, laburduren eta siglen ohiko moldeak erabili gabe, eta ohikoa da bokalak ezabatzea. Hala, holako mezuetan era honetako laburtzapenak ikusten dira:

Mlskr mila esker
ZMZ zer moduz zaude
AMZ asko maite zaitut
Mx muxua

Sare sozialetan, txatetan eta mezu laburretan erabiltzen diren laburtzapen horiek guztiak ez dira testu arruntetara eraman behar. Esparru ez-formal horietarako sortu dira, beren komunikazio-funtzioa betetzen dute han, eta ez dirudi gaur-gaurkoz

ortotipografiaren langai izan behar luketenik, ez baitute sistematizazioaren beharrik, eta, jakinaren gainean egindako transgresioak diren aldetik, berez baitaude arau eta konbentzioetatik kanpo.

4 Laburtzapen-motak

Ortografia eta ortotipografiari buruzko azterlan tradizionaletan, laburdurak, siglak eta sinboloak sartu ohi dira laburtzapen grafikoen barnean. Hala ere, gaur egun, sinboloak ez dira laburtzapenen barnean sailkatzen, berez ez baitira laburtzapenak: kontzeptuen adierazpenak, hizkuntza sinbolikoaren osagaiak eta entitate matematikoak dira, eta ez hitz laburtuak. Gainera, nazioarteko arau eta konbentzioen mende daude, eta ez daude hizkuntza jakin bati lotuak. Horregatik, laburtzapenetatik bereiz aztertzeoak dira.

Horrenbestez, azterlan honetan, laburdurak eta siglak dira laburtzapenak, eta sinboloak ez.

5 Laburtzapenak euskaraz. Atzera begira

Ez dio Euskaltzaindiak gai honi berariaz heldu orain arte, baina euskalgintzan izan dira zenbait saio lehenago ere, eta bidezko da horiek aipatzea. Normala den bezala, itzultzaileak izan ziren gai horri heldu zioten lehenengoetakoak, itzulpen administratibo eta teknikoak egiten zituztenak batez ere, beste hizkuntzetako errealitateak euskarara ekartzean behin eta berriro aurkitzen baitzituzten laburdurak eta siglak.

Lehen lan mamitsua 1985ean plazaratu zen. EIZIE Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteak argitaratzen duen *Senex* aldizkariaren 4. zenbakian, «Laburtzapena euskaraz» izenburuko artikulu bat argitaratu zuen Gotzon Egia itzultzaileak. Hartan, deskribapen orokorra egiteaz gainera, laburtzapen-mota bakoitzaren ezaugarriak eta laburtzapenak euskaraz sortzeko eta itzultzeko irizpideak ere proposatu zituen.

Hiru urte geroago, 1988an, *Laburtzapenen gidaliburua: siglak, ikurrak, laburdurak* liburua argitaratu zuen UZEIk, Paulo Agirrebaltzategik koordinatuta. Laburtzapen-mota bakoitza deskribatu eta euskaraz eratzeko irizpide eta gomendioak emateaz gainera, laburduren, siglen eta sinboloen zerrenda luzeak ere baditu bigarren parte mardulean. Zerrenda horiek Euskalterm terminologia-bankuan jarri ziren kontsultagai. 2010ean, zerrenda horiek eguneratu egin zituen Eusko Jaurlaritzak Euskalterm Euskal Terminologia Banku Publikoan, Terminologia Batzordeak gainbegiratuta, baina irizpideak ez ziren eguneratu edo berrargitaratu.

1994an, Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarrean, Leioan, laburtzapenei buruzko bi lan aurkeztu ziren: «Laburtzapenen deklinabidea» txostena irakurri zuen Igone Zabalak, eta «Osasun-zientzietako laburtzapenak» txostena Iñaki Ugarteburuk eta Jon Irazustak.

2004an, *Ortotipografia* liburua argitaratu zuen Eusko Jaurlaritzako Ikasmaterialetako Hizkuntzaren Egokitasun-irizpideak Finkatzeko Aholku Batzordeak, Joxe Ramon Zubimendik atondua. Lan hori argitaratu aurretik, Euskaltzaindiari bidali zion, eta Euskaltzaindiko Jagon Sailak, Corpus batzordearen bidez azertu ondoren, oniritzia eman zion, honela:

Jagon Saileko Corpus batzordeak egoki eta taxuzkoa deritzo *Ortotipografia* lan horri, eta oniritzia eman dio.

Oniritzi honek ez ditu ez murriztuko eta ez baldintzatuko Euskaltzaindiak gerora alor horretan erabaki ditzakeenak.

Lan horren atal bat siglei buruzkoa da, eta beste bat laburdurei buruzkoa. Gidaliburu bat denez, deskribapen laburrak ditu, eta, irizpide orokorrak zehazteaz gainera, erabilera-adibideak ematen ditu.

Hiru lan orokor horien ondoren, beste lan xeheago batzuk argitaratu dira, ez orokorrak, EIZIEn bidez. 2004ko maiatzean, ortotipografiari buruzko mintegi bat antolatu zuen EIZIEk, *Ortotipografia* liburu argitaratu berria abiapuntutzat hartuta, eta *Senex* aldizkariko 28. zenbakiko artikulu batean argitaratu zituen mintegiaren ondorioak 2005ean. Artikulu horretan, siglen eta laburduren irizpideetan dauden zenbait hutsune

eta arazo aipatzen dira. Eta siglei buruzko beste bi artikulua argitaratu ditu EIZIEk gerora *2tzul* izeneko irizpen-biltegian, 2008an¹ eta 2013an².

Haietaz gainera, erakunde batzuek sigla eta laburdurei buruzko irizpide sektorialak eta zerrendak eman dituzte beren estilo-liburuetan, hala nola *Berriak*³ eta IVAPek⁴.

Bidegile izan diren horiek guztiak hartu dira kontuan lan hau ontzeko.

¹ [Siglen deklinabidea \(Irene Arrarats\)](#)

² [Siglak irakurtzen, siglak deklinatzen \(Alfontso Mujika\)](#)

³ [Berria estilo liburua](#)

⁴ [IVAPeko estilo-liburua](#)

Laburdurak

1 Laburdurak zer diren

Laburdura hitz baten edo hitz bat baino gehiagoko adierazpen baten laburtzapen idatzia da, hitz edo adierazpen hori osatzen duten letra edo silaba batzuk murriztuz eratua.

Zenbat hitz ordezten dituzten, bi laburdura-mota daude: laburdura bakunak, hitz bat besterik ordezten ez dutenak, eta laburdura konposatuak, hitz bat baino gehiago ordezten dituztenak. Adibideak:

LABURDURA BAKUNAK LABURDURA KONPOSATUAK

adib. → adibidez dipt. nag. → diputatu nagusia

dk. → doktorea g. g. er. → gaur gutxi erabilia

hbru. → hiriburua iz. of. → izen ofiziala

2 Laburdurak nola irakurtzen diren

Laburdura murriztapen grafikoa baino ez da. Benetako laburdurak ez du existentziarik ahozko hizkuntzan. Ahozko hizkuntzan ez da kontuan hartzen murriztapen grafikoa, eta osorik berreraikitzen da laburduraren jatorrian dagoen hitz edo unitate konplexua: testuan jn., adib., izond. edo etab. ikusita, jauna, adibidez, izenondoa edo eta abar irakurtzen da, eta irakurri behar da. Hori da laburduren eta siglen arteko alde nabarmena. Laburdurak ez du aberasten lexikoa; hau da, laburdura ez da ahozko hizkuntzara igarotzen, salbuespenak salbuespen (adibidez, latinezko a.m. [*ante meridiem*] eta p.m. [*post meridiem*] laburdurak *a-eme* eta *pe-eme* irakurri ohi dira. Eta bada laburduraren bat edo beste sigla bihurtu dena; adibidez, S.A. [*sozietate anonimoa*] *ese-a* irakurri ohi denez, sigla bilakatu da: SA).

3 Laburdura pribatu edo pertsonalak eta laburdura publiko edo konbentzionalak

Laburdura pribatuak edo pertsonalak mundu pribatuari dagozkio: pertsona batek bere idazkera pribatuan erabiltzen dituenak dira; berarentzat dira baliagarriak, eta ez daude pentsatuta beste inork irakur ditzan. Pertsonalak dira; ez dago, beraz, haientzako araurik: esfera pribatuari dagozkio, eta lan honen helburutik kanpo daude.

Laburdura publiko edo konbentzionalak erabilera orokorrekoak dira; hizkuntza baten erabiltzaileen komunitateak ezagutzen eta baliatzen dituenak dira. Horregatik, arau edo hitzarmen komun batzuen arabera erabiltzen eta eratzen dira.

4 Laburdurak puntuz amaitzen dira

Hitz bat edo hitz anitzeko adierazpen bat laburdura gisa laburtua dagoela adierazten duen marka laburduraren amaieran dagoen puntua da: laburdura-puntua. Punturik ez badu, ez da laburdura. Puntua da laburduraren bereizgarria; horretan bereizten da sigla eta sinboloetatik. Adibidez, *gar.* (garaiera), *emak.* (emakumea) eta *hur.* (hurrengo) laburdurak dira, eta ez *gar* (suarena) *emak* (eman aditzaren aginterako adizkia) eta *hur* (hurritzaren fruitua) hitzak.

Guztiarekin ere, ez da komeni laburdurak maiztasun handiko hitzen berdinak izatea. Adibidez, zenbakia hitzaren laburdura gisa ez da komeni zen. erabiltzea, edo ezkerra hitzaren laburdura gisa ez. erabiltzea.

Gaztelaniaren eraginez merkataritzaren arloko laburdura batzuetan inoiz erabili bada ere, barra etzana (/) ez da erabili behar laburdurak adierazteko:

(EGOKIA) *k.*; *ktu.* *kte.*

(DESEGOKIA) *k/(kalea)*; *k/k* (kontu korrontea)

Punturik ez badu, ez da laburdura. Salbuespen bakarra *vs da*, *versus* hitzaren laburdura, punturik gabe ere idazten baita. Adibidez: *publikoa vs pribatua*.

Bibliako liburuen izenak laburtzeko, sinboloak erabiltzen dira berez, ez laburdurak, laburduren artean sailkatu ohi badira ere. Horregatik, punturik gabe idazten dira.

5 Erabilera

Estilo-liburuek gomendatu ohi dute laburdurak ahalik eta gutxienik erabiltzea testu arruntetan. Gomendio zuhurra da. Laburduren erabilera testuinguru jakinetara mugatzea komeni da. Esate baterako, tratamendu-formuletan, gutun-azaletako posta-helbideetan, gutun formalen hasieran eta bukaeran, edo adierazpen edo iragarki laburretan. Adibidez, gutun-azal batean, ohikoa da pl. edo k. laburdura erabiltzea helbidea idaztean:

Konstituzio pl., 8

Katalina Erauso k., 23

Hala ere, testu orokor baten barnean ez litzateke erabili behar. Laburduraren ordeztu, hitz osoa erabili behar da:

(EGOKIA) Donostiako Konstituzio plaza Parte Zaharra auzoan dago.

(DESEGOKIA) Donostiako Konstituzio pl. Parte Zaharra auzoan dago.

(EGOKIA) Bihar, goizeko hamarretatik aurrera, Katalina Erauso kalea itxiko dute.

(DESEGOKIA) Bihar, goizeko hamarretatik aurrera, Katalina Erauso k. itxiko dute.

Salbuespena izenaren aurretik erabiltzen diren santu eta santa tratamenduen laburdurak dira, S. eta Sta., testuen barnean erabili baitaitezke. Adibideak:

Sta. Zeziliaren irudia

S. Mateo ebanjelaria

Sta. Teresaren jaiotetxea

Eskolapioak S. J. Calasanz-ek XVI. mendean sortu zuen ordenako kideak dira.

Hala ere, S. eta Sta. laburdurak ez dira erabili behar leku-izenen parte direnean. Adibideak:

(EGOKIA) Ederra da San Martin Unxeko eliza nagusia.

(DESEGOKIA) Ederra da S. Martin Unxeko eliza nagusia.

(EGOKIA) Nafarroako San Adrian herria.

(DESEGOKIA) Nafarroako S. Adrian herria.

(EGOKIA) Donibane Lohizuneko Santa Barbara auzoa.

(DESEGOKIA) Donibane Lohizuneko Sta. Barbara auzoa.

(EGOKIA) Karibeko Santa Luzia uhartea.

(DESEGOKIA) Karibeko Sta. Luzia uhartea.

Testu berezietan, hiztegi eta entziklopedietan —bai eta, kasurako, historiako edo ekonomiako liburuetan ere— erreferentzia, eranskin, lauki eta tauletan, laburdura ugari erabili ohi dira, maiz *ad hoc* sortuak, eta oso baliagarri gertatzen dira testuak arintzeko.

Nolanahi ere, laburdura horiek ere publikoak dira, eta gainerako laburdurak sortzeko dauden arau eta konbentzioen arabera eratu behar dira. Ezinbestekoa da obra batean erabilitako laburdura ezohiko edo antzemangaitz guztien esanahia argitzea, obraren hasieran (edo laukiaren edo taularen azpian) laburduren eta bakoitzaren esanahia zerrendatuta.

5.1 Premiarik gabe, ez sortu laburdurarik

Testu batean gutxitan agertzen diren hitzak ez dira laburtu behar. Maiztasunak justifikatu behar du laburduraren erabilera. Zenbat eta erabiliagoa izan hitza, hainbat beharrezkoagoa izango da laburdura.

Era berean, laburdurak eraginkorra izan behar du: zenbat eta luzeagoa izan hitza, hainbat errentagarriagoa izango da laburdura. Neurri orientagarri gisa, laburtu nahi den hitzaren bi letra ezabatu behar dira, gutxienez, errentagarria izango bada. Kontuan izan behar da laburdura-puntua erantsi behar dela amaieran; beraz, letra bat besterik kenduko ez balitz, laburduraren karaktere-kopurua jatorrizko hitzak duen bera litzateke. Zenbat eta luzeagoa izan hitza, hainbat errazago ezabatu ahal izango dira letrak.

Adibidez, alferrikakoa da *zirk.* laburdura sortzea *zirkua* hitza laburtzeko. Era berean, testu arruntetan ez da komeni *ikus* hitza laburtu eta *ik.* idaztea, testu arruntetan ez

delako komeni laburdurak idaztea eta ez delako oso errentagarria karaktere bat besterik ez aurrezte. Egokia izan daiteke, berriz, hiztegi edo entziklopedia batean, behin eta berriro erabili behar denean.

Zenbaitetan, elkarrekin erlazioa duten bi hitzi edo gehiagori ezartzen zaizkie laburdurak; hor sor daitezke alferrikako laburdurak, hitz horien luzerak aski desberdinak badira. Adibidez, zehaztgb. laburdura sortu bada zehaztugabea hitzerako, bide beretik zehazt. laburdura sortzea zehaztua hitzerako, kontuan izan gabe zehaztua hitzari sortu zaion laburdurak (zehazt.) ez duela ezer laburtzen, hitzaren luzera bertsukoa baita. Kontuan izanik sail edo arlo bereko laburdurak batera sortu eta erabaki ohi direla, komeni da hasieratik beretik hartzea kontuan laburdura-multzo osoa. Hala, adibidez, ez litzateke sortuko zehaztgb. laburdura gero zehazt. sortzeko; haien orde, zehgb. eta zeh. sor litezke batera, hasieratik.

5.2 Beste erabilera-aholku batzuk: saihestu beharrekoak

Laburdurak erabiltzean, modu koherentean jokatu behar da, testuaren uniformetasuna eta mezuaren ulergarritasuna ziurtatzearen. Bi puntu nabarmen hauek hartu behar dira kontuan:

5.2.1 Laburdura bati esanahi bakarra esleitu behar zaio

Testu edo obra jakin batean, laburdura batek hitz bat edo hitz-segida bat besterik ezin du ordeztu, beti bera. Hau da, testu berean ezin da laburdura homografik erabili, laburdura bera ezin da erabili hitz bat edo hitz-segida bat baino gehiago ordezteko.

Adibidez, pl. laburdura baliatzen bada plaza hitza laburtzeko, testu berean ezingo da laburdura bera erabili plurala hitza laburtzeko; kopia hitza laburtzeko kop. erabiltzen bada, ezingo da laburdura hori baliatu kopurua laburtzeko, testu berean; edo eusk. laburdura euskalduna hitza laburtzeko eta laburdura bera euskalkia hitza laburtzeko. Edo gaur egun laburtzeko g.e. laburdura hautatzen bada, testu berean ezingo litzateke g.e. baliatu gutxi erabilia laburtzeko edo gure eskutitza laburtzeko. Edo Geom. baldin bada geometria hitzaren laburdura, ezin izango da, halaber, geomorfologia hitzaren laburdura izan.

Testu desberdinetan, ordea, zilegi da erabiler hori, betiere baldin eta laburdura oso finkatua ez badago. Adibidez, part. laburdura erabil liteke partikularra, edo partitiboa edo partitura hitzak laburtzeko, testu desberdinetan bada. Edo kol. erabili ahal izango da kolegioa, kolonia edo kolorea hitzen laburdura gisa, testu desberdinetan betiere. Hala ere, ez litzateke komeniko tel. laburdura erabiltzea testu batean telebista laburtzeko, dagoeneko aski finkatua baitago telefonoa laburtzeko; ezta jn. laburdura asmatzea ere jainismoa laburtzeko, dagoeneko erabileran okupatuta baitago jaun hitza laburtzeko.

Hala ere, zilegi da grafema berdin batzuek, testu berean egonik ere, esanahi desberdina izatea, baldin eta haietako bat beste batzuei elkartua badago, batasun bat osatuz, edo testuinguru nahastezin batean agertzen bada.

Adibidez, ad. laburdura aditza hitzaren laburdura da, baina adeitasun osoz kortesiazko esapidearen laburdura ad. os. izan daiteke, eta testu berean gertatu. Hor ez dago anbiguotasunik: ad. os. ez da bi laburduraren batura, bi hitzez osatutako adierazpen baten laburdura baizik, laburdura bat: ad. laburdura bat da, eta ad. os. beste laburdura bat da, desberdinak dira.

Era berean, or. erabiltzen da orrialdea laburtzeko, baina baita ostirala laburtzeko ere. Ez legoke arazorik biak testu berean agertuta ere, orrialde hitza zifra baten ondoren agertuko baita beti, eta ez bata ez bestea ez direlako agertuko testu normal batean sartuta, baizik eta adierazpen edo iragarki labur batean edo taula batean.

5.2.2 Esanahi bati laburdura bakarria esleitu behar zaio

Testu edo obra jakin batean, hitz bat edo hitz-segida bat laburtzeko, laburdura bakarria erabili behar da beti. Adibidez, telefonoa laburtzeko tel. laburdura erabiltzen bada behin, horri eutsi behar zaio testu osoan, eta ezingo da gero tf. laburdura erabili hitz bera laburtzeko taula batean hobeto gelditzen delako edo estetikoki egokiagoa delako. Bestela, irakurleak pentsatuko du tf. laburduraren esanahia beste bat dela, badakielako —lehenago ikusi duelako— tel. erabili dela telefonoa hitzaren laburdura gisa.

Kontuan izan behar da, bestalde, laburdura guztiak ez daudela erabat estandarizatuta eta finkatuta. Horregatik, kasu gutxi batzuetan, laburdura bat baino gehiago erabiltzen dira edo erabili dira hitz bera laburtzeko. Adibidez:

artikulua → art. eta artik.

telefonoa → tf. eta tel.

zenbakia → zk. eta zenb.

Hala ere, testu batean edo obra batean ezin dira erabili bi laburdura hitz bera laburtzeko (non eta ez diren beste modu batean bereizten, hala nola tipografia desberdina erabiliz); bat hautatu behar da, eta hura bakarrik erabili.

6. Laburdurak sortzeko bideak

Laburdurak sortzeko, bi prozedura erabiltzen dira: ebaketa (eskuinetiko ebaketa) eta kontrakzioa (trinkotzea).

6.1 Ebaketa: eskuinetiko ebaketa

Prozedurarik emankorra da. Laburtu nahi den hitzaren amaierako silabak edo letrak ezabatzean datza. Bokal baten aurretik egiten da ebakia, eta puntua jartzen da gelditzen den hitz-zatiaren ondoren. Adibidez, batxilergoa hitzetik batx., bidegurutzea hitzetik bideg. edo emakumezkoa hitzetik emak.

Hitza ebakitzean saiatu behar da hitzaren erroa erabat ez ezabatzen, ahal dela, laburdurak ordeztu duen hitzari antzematea erraztearren. Bada kasu berezi bat, dena dela, hori kontuan hartzen ez duena, eta nahitaez bokal baten aurretik ebakitzen ez duena: muturreko ebaketa, hau da, hitzaren letra bakarrik uztea, iniziala.

Prozedura hori oso erabilia da onomastikan antroponimoekin, hau da, pertsona-izenekin. Pertsonaren izena eta deitura idatzi beharrenean, izenaren iniziala eta deitura idatzen da. Adibidez, D. Ibarruri, J.A. Agirre, K. Mitxelena, F. Kahlo, M. Thatcher, J.S. Bach edo K. Marx idaztea Dolores Ibarruri, Jose Antonio Agirre, Koldo Mitxelena, Frida Kahlo, Margaret Thatcher, *Johann Sebastian Bach* edo

Karl Marx osorik idatzi beharrea. Halakoetan, izena ezaguna denean, izen osoa irakurri ohi da, eta ez laburdura.

Beste batzuetan, izena eta deitura, biak, inisial hutsez laburtzen dira, nahita. Adibidez:

28 urteko gizonezko bat, G.C.T.C., hil da gaur goizean Gares parean gertatu den auto istripuan. Harekin 26 urteko M.T.A.L. emakumezkoa zihoan autoan, eta hura larri zaurituta eraman dute Iruñeko Nafarroako Ospitalera.

Inisial bat baino gehiago jarraian gertatzen direnean, ez da zuriunerik uzten aurreko inisialaren puntuaren ondoren eta hurrengo inisialaren artean: J.S. Bach, J.A. Agirre, M.T.A.L. emakumezkoa.

Frantsesezko izenetan, ponte-izenak euskarara egokitzen ez direnean, marratxoa erabiltzen da bi izenen inisialen artean. Adibidez:

J.-L. Davant (Jean-Louis Davant)

J.-B. Coyos (Jean-Baptiste Coyos)

M.-A. (Marie-Anne)

L.-Ph. (Louis-Philippe)

Muturreko ebaketaz sortu dira zenbait laburdura ezagun, baina ez da komeni prozedura hori erruz erabiltzea (horretarako daude siglak), hainbeste murriztuta zailagoa baita laburtutako hitzari antzematea. Adibidez:

b. → bidea

d. → data

e. → eguna

h. → hobe

k. → kalea

m. → mendea

S. → San

u. → urte

Batez ere hitz bat baino gehiagoko adierazpenen laburduretan baliatzen da muturreko ebaketa. Adibidez:

a.m. → *ante meridiem*

b.g. → besterik gabe

d.g. → datarik gabe

g.e. → gaur egun

g.g.b. → gutxi gorabehera

j.i. → jatorrizko izena

K.a. → Kristo aurreko

z.g. → zenbakirik gabe

Hitz bat laburtzeko, hobe da laburdura bera erabiltzea beti testuinguru guztietan, baina ez da beti-beti betetzen. Adibidez, gerta daiteke muturreko ebaketaz osatutako adierazpen baten laburduran inisiala bakarrik baliatzea eta laburdura luzeago bat, berriz, ebaketa arruntez osatutako beste laburdura batean. Adibidez:

i.g. inprimategirik gabe batetik, eta **inpr.** inprimategia bestetik.

j.i. jatorrizko izena batetik, eta **jat.** izenb. jatorrizko izenburua bestetik.

6.1.1 Eskuinetiko ebaketaz osatutako laburdurak kontsonantez bukatu behar du

Eskuinetiko ebaketa baliatzen denean hitz bat laburtzeko, laburdurak kontsonantez bukatu behar du, eta ebakita uzten den silabaren hasierako kontsonante guztiei eutsi behar zaie. Adibidez:

abstraktua → abs-**trak**-tu-a → abstr.

enpresa → en-**pre**-sa → enpr.

geografia → ge-o-**gra**-fi-a → geogr.

kartografia → kar-to-**gra**-fi-a → kartogr.

pediatria → pe-di-a-**tri**-a → pediatr.

Irizpide horren arabera, hauek, adibidez, desegokiak lirateke:

bibliografia → bibli**og**. (EGOKIA: bibli**ogr**.)

biogeografia → bioge**og**. (EGOKIA: bioge**ogr**.)

fitogeografia → fitoge**og**. (EGOKIA: fitoge**ogr**.)

folklore → folk**.** (EGOKIA: folk**l**.)

kaligrafia → kal**ig**. (EGOKIA: kal**igr**.)

Horren ondorioz, kontsonantearen hasieran digrama bat dagoenean ere, gorde egin behar da, silabaren hasiera ez desitxuratzeko. Adibidez:

antzerkia → an-**tzer**-ki-a → antz. (DESEGOKIA: ant.)

batxilergoa → ba-**txi**-ler-go-a → batx. (DESEGOKIA: bat.)

galtzada → gal-**tza**-da → galtz. (DESEGOKIA: galt.)

kontseilua → kon-**tsei**-lu-a → konts. (DESEGOKIA: kont.)

otsaila → o-**tsai**-la → ots. (DESEGOKIA: ot.)

Digrama hori rr denean ere betetzen da, oro har:

azterr. → azterr**aldia**

arr. → arrun**ta**

marr. → marr**azketa**

narr. → narr**astia**

parr. → parr**okoa**

zuz. err. → zuzenbide errom**atarra**

Hala ere, gainerako digrametan ez bezala, ez da beti betetzen; badira salbuespen batzuk. Adibideak:

Ipar. → Iparr**aldea**

or. → orri**aldea**

6.1.2 Silaba desberdinetako elkarren ondoko kontsonanteen artean ez da ebaki behar

Eskuinetako ebaketaz sortutako laburdura, aurreko puntuan adierazi den moduan, kontsonantez bukatu behar du, eta, horretaz gainera, ebaketa gauzatu ondoren puntua jarriko litzatekeen tokian jatorrizko hitzean beste kontsonante bat baldin badago, ez da hor ebaki behar, hurrengo kontsonante horren ondoren baizik. Hau da, silaba bat kontsonantez bukatzen bada eta hurrengo silaba ere kontsonantez hasten bada, ez da komeni lehenengo silabaren ondoren ebakitzea. Adibidez, instrumental hitzaren laburdura eratzeko, desegokia litzateke ins. egitea, puntua dagoen tokiari kontsonante bati dagokiolako jatorrizko hitzean; orobat, desegokia litzateke inst. egitea, ebakita uzten den silabaren hasierako kontsonante guztiei eutsi behar zaielako. Horrenbestez, instr. litzateke laburdura kanonikoa.

Adibide gehiago:

(EGOKIA) berrinpr. → berrinprimatzea (be-rrin-**pri**-ma-tze-a); (DESEGOKIA) berrinp.

(EGOKIA) berts. → bertsogintza (ber-**tso**-gin-tza); (DESEGOKIA) ber.

(EGOKIA) elektr. → elektrizitatea (e-lek-**tri**-zi-ta-te-a); (DESEGOKIA) elek.

(EGOKIA) futb. → futbol (fut-**bo**-la); (DESEGOKIA) fut.

(EGOKIA) salm. → salmenta (sal-**men**-ta); (DESEGOKIA) sal.

(EGOKIA) zibern. → zibernetika (zi-ber-**ne**-ti-ka); (DESEGOKIA) ziber.

6.1.3 Laburdurak kontsonantez bukatu beharraren salbuespenak

Ebaketaz laburtutako hitzaren laburdura kontsonantez bukatu beharra da gomendinoa, eta, praktikan, hala betetzen da gehienetan. Hori ez da betetzen, jakina, inisialez bakarrik osatutako laburduretan, baina ebaketa arruntez osatutakoetan ere badira, ordea, zenbait salbuespen. Adibidez, hilen laburduretan: hamabi hilabeteen laburduretan luzera uniformeak lortzearren (denak hiru letrakoak izatea), batzuk bokalez bukatzen dira:

abe. → abendua

abu. → abuztua

api. → apirila

aza. → azaroa

eka. → ekaina

ira. → iraila

mai. → maiatza

Baina, irizpide horren arabera, hauek guztiak desegokiak lirateke:

moi. → moila (EGOKIA ZEIN?: letra bakarra aurrezteko, ez da laburdurarik behar)

ko. → konpainia (EGOKIA: konp.)

mono. → monofoniko (EGOKIA: monof.)

au. at. → aurretik atzerako (EGOKIA: aurr. atz.)

P. Ku. → posta-kutxa (honela behar luke: p.-k. edo p.k.)

Baldin eta ebakitzen den silabaren osagai bakarra bokal bat bada, hau da, silabak kontsonanterik ez badu, onargarria da silabaren bokala izatea laburduraren azken letra, hots, eskuinetiko ebaketaz osatutako laburdura izanik ere bokalez amaitzea.

Adibidez:

peioratiboa → pei-**o**-ra-ti-bo-a → peio. (dena dela, peior. egokiagoa litzateke)

taoismoa → ta-**o**-is-mo-a → tao.

Halaber, baldin eta silaba bat bokalez bukatzen bada eta hurrengo silabak *bokal + kontsonante* hurrenkera badu, onargarria da silabaren bokala izatea laburduraren azken letra. Adibidez:

ekialde → e-ki-**al**-de → eki.

6.2 Kontrakzioa: trinkotzea

Laburtu nahi den hitzaren barneko zenbait letra, elkarren ondokoak edo ez, ezabatzean datza. Letrarik adierazgarrienak uzten dira, laburtutako hitzari

antzemateko egokientzat jotzen direnak (kasu honetan, eskuinetiko ebaketan ez bezala, ez dago arazorik laburduraren azken letra bokala izateko). Eta gelditzen den hitz-zatiaren ondoren puntua jartzen da beti, nahiz eta hitzaren azken letra laburdurako azken letra izan, garbi uztearren laburdura dela, eta ez hitza. Bestela, batzuetan zalantza egin liteke. Adibidez, punturik jarri ezean, pentsa liteke hitzgile. (hitzaurregilea) edo transle. (transkribatzailea) benetako hitzak direla, edo ztua. (ziurtatua), igaitz. (iragangaitza) edo aktu. (aurrekontua), punturik gabe ikusiz gero, idazte-akatsen bat duten hitzak direla.

Kontrakzioz sortutako laburdurak dira, adibidez, adkor. (adierazkorra hitzetik), zm. (zentimua hitzetik) edo ktu. kte. (kontu korrontea terminotik).

Hasierako letra utzi behar da beti, nahiz eta hasierako silabako letra bat edo batzuk ezabatu, eta, askotan, azken silabako lehen kontsonantea edo azken silaba ere uzten da. Eta tarteko letra bat edo batzuk ere uzten dira; ohikoagoa da bokal gehiago kentzea kontsonante baino. Adibideak:

aptu. → apartamentua

btz. arr. → batzar arrunta

btzkde. → batzarkidea

hbru. → hiriburua

izlag. → izenlaguna

ktdu. → kantonamendua

luzp. → luzapena

libk. → liburukia

Badira, dena dela, hitzaren bukaerako parte ere osorik galdua duten laburdurak ere; hau da, kontrakzioaz gainera eskuinetik ere ebakita daudenak, ugarienak ez badira ere. Adibideak:

aldz. → aldizkaria

hizkl. → hizkuntzalaritza

izg. → izengoitia

lgart. → lagunartekoa

nart. → nazioartekoa

tb. → telebista

zenbtz. → zenbatzailea

zirkl. → zirkulazioa

7 Marratxoak eta zuriuneak laburdura konplexuetan

Laburdura konplexua denean, hau da, hitz bat baino gehiagoko adierazpen bat laburtzen denean, laburduraren osagaietako bakoitzaren ondoren puntua jarri behar da. Laburdura osatzen duten osagaien artean ez da zuriunerik utzi behar baldin eta laburdura inisialez bakarrik osatuta badago. Adibidez:

a.m. → *ante meridiem*

b.s.b. → baldin eta soilik baldin

d.g. → datarik gabe

g.g.b. → gutxi gorabehera

j.b.i. → jatorrizko benetako izena

K.a. → Kristo aurreko

z.g. → zenbakirik gabe

Aldiz, osagaien artean zuriune bat utzi behar da baldin eta osagaietako bat, gutxienez, inisialaz gainera beste letraren batez edo batzuek osatuta badago. Adibidez:

ad. os. → adeitasun osoz

art. graf. → arte grafikoak

diptu. nag. → diputatu nagusia

g. er. → gutxi erabilia

g. g. er. → gaur gutxi erabilia

iz. arr. → izen arrunta

k. nag. → kale nagusia

o. edo h.e. → oker edo hutsik ezean

Sta. M. → Santa Maria

Laburdura hitz-elkarte bati dagokionean, baldin eta elkartea marratxoz idazten bada —edo marratxoz idazteko hautuari heldu nahi bazaio—, marratxoari euts dakioko laburduran ere (gogoan izan 6.1 puntuan zehazten dela frantsesezko ponte-izen konposatuetan marratxoa erabili behar dela). Marratxorik gabe idazten bada, berriz, laburduran ere ez da marratxorik erabiliko (kasurako, bi hitzak letra larriz hasita idazten diren hitz-elkarteetan ez da marratxoa erabiltzen⁵). Adibidez:

a.-k. edo a.k. → adimen-koefizientea

bul.-zk. edo bul. zk. → bulego-zenbakia

eb.-er. edo eb. er. → ebaketa-erreminta

g.-hezk. edo g. hezk. → gorputz-hezkuntza

zeta-hazk. edo zeta hazk. → zeta-hazkuntza

Zig. Kd. → Zigor Kodea

8 Zenbat hitz adierazpenean, hainbat hitz-zati haren laburduran

Hitz bakar baten laburdurak osagai bat besterik ez du izan behar. Ez da egokia hitz bat laburtzeko bi osagaiko laburdura bat (laburdura konposatu bat) eratzea. Adibidea:

(EGOKIA) zkdun. → zenbakidun

(DESEGOKIA) zk. dun. → zenbakidun

⁵ Horren salbuespena dira Lasarte-Oria gisako leku-izen konposatuak, baina halakoetan nekez beharko da laburdura.

Hitz bat baino gehiagoko adierazpen baten laburdurak osagai bat baino gehiago izan behar du. Ez da egokia hitz bat baino gehiagoko adierazpen bat laburtzeko osagai bakarreko laburdura bat (laburdura bakun bat) eratzea. Adibidea:

(EGOKIA) a.b. edo ald. batko. → aldi baterako

(DESEGOKIA) aldib. → aldi baterako

(EGOKIA) m.-eg. edo m. eg. → muga-eguna

(DESEGOKIA) mgun. → muga-eguna

Salbuespena etab. laburdura da, erabilerak finkatu baitu eta abar adierazteko. Haren esanahi bera duen latinezko etc. laburduraren kalko gisa sortua dirudi (latinezko *et cetera* bi hitzez osatutako esapidearen laburdura da etc.).

Salbuespentzat hartzekoa da, halaber, dagoeneko aski finkatua dagoen g.g.b. (gutxi gorabehera) laburdura ere, nolabait: bi hitzeko multzoa laburtzeko, hiru osagaiko laburdura erabiltzen da, biko erabili beharrean.

9 Plurala

Laburdurek ez dute, berez, pluraleko formarik. Laburdura gutxi batzuen esanahia sintagma plural bat da, hala nola art. ed. (arte ederrak), art. graf. (arte grafikoak). Eta beste batzuk, testuinguruaren arabera, singular edo plural izan daitezke, hala nola hurr. (hurrengoa zein hurrengoak) edo deskribapen bibliografikoetan erabiltzen den aurr. laburdura (aurretikoa edo aurretikoak). Beste batzuk esapideak dira, eta ez dira izen-sintagmak (adibidez, K.a. [Kristo aurreko], izpta. [izenpetuta], g.g.b. [gutxi gorabehera], h.h. [hitzez hitz]), baina laburdura gehienak, agertu ohi diren testuinguruan, absolutiboan eta singularrean erabiltzekoak dira.

Nolanahi ere, singularrean eta pluralean ager daitezkeen laburduren kasuan, ez da inolako markarik ezarri behar plurala adierazteko. Adibidez, orrialdea hitzaren laburdura or. da, eta, testuinguruagatik, orrialdeak irakurtzekoa dela adierazteko, ez da orr. idatzi behar.

(EGOKIA) XIX. m. (hemeretzigarren mendea)

(EGOKIA) XIV. eta XV. m. (hamalagarren eta hamabosgarren mendeak)

(EGOKIA) ikus 25. or. (ikus 25. orrialdea)

(EGOKIA) ikus 25., 27. eta 28. or. (ikus 25., 27. eta 28. orrialdeak)

(DESEGOKIA) ikus 25., 27. eta 28. orr.

(EGOKIA) ikus 27. or. eta hurr. (ikus 27. orrialdea eta hurrengoak)

10 Letra larriak eta xeheak laburduretan

Laburtutako hitzei dagokien letra larri eta xeheen erabilerari jarraitu behar diote laburdurek. Hala, izen berezien edo haien baliokide diren adierazpen izendatzaileen laburdurak letra larriz hasita idazten dira. Adibidez, pertsona-izenen eta kidekoen inzialak:

A. Einstein (Albert Einstein)

B. Mogel eta J.A. Mogel (Bizenta Mogel eta Juan Antonio Mogel)

D. Ibarruri (Dolores Ibarruri)

J.g.z.l. (Jainkoak gorde zaitzala luzaro)

Juan M. de Irujo (Juan Martínez de Irujo)

K.a. (Kristo aurreko; Kristo aurretik)

Leku-izenen laburdurak:

E.S. (Egoitza Santua)

Heg. (Hegoaldea)

Ipar. (Iparraldea)

Oz. (Ozeania)

San eta Santa hitzen laburdurak:

S. Joan (San Joan)

Sta. Teresa (Santa Teresa)

Letra larriz hasita idazten diren kode eta kidekoen laburdurak:

I.Z. (Itun Zaharra)

Kd. Zib. (Kode Zibila)

Zig. Kd. (Zigor Kodea)

Gainerakoan, lexiko arrunteko hitzen laburdurak letra xehez hasita idatzi ohi dira:

bizt. (biztanlea)

iz. of. (izen ofiziala)

kop. (kopurua)

or. (ostirala)

uzt. (uztaila)

Badira, azkenik, zenbait laburdura, letra larriz hasita idazten direnak izen bereziak ez izan arren. Hala idazteko arrazoi bakarra tradizioa da, usadioa. Halakoak dira latinezko laburdura batzuk:

N.B. (nota bene)

P.D. (post data)

P.S. (post scriptum)

Beste adibide batzuk:

E.B. (eskuordetzaren bidez)

O.E. (ontzat emana)

P.k. (posta-kutxa)

Bestalde, laburdura letra larriz hasita idatzi behar da baldin eta puntuazio-arauengatik forma osoa letra larriz hasita idatzi beharko balitz. Adibidez, dokumentu baten amaieran arduradunak izenpetzeko tokia uzten den gunearen aurrean, Izpta.

laburdura idatziko da, letra larriz hasita, nahiz eta laburdura izpta. izan, aparteko paragrafo baten hasieran dagoelako:

Zuzendaria

Izpta.: _____

Edo idazpuruetan, pertsonaren edo erakundearen izenaz gainera beste datu batzuk idaztean, hala nola telefonoa. Adibidez:

Osinalde SA

Zelai Txiki 10

31200 Lizarra (Nafarroa)

Tel.: (+34) 948 66 86 99

Beste hainbeste testu baten barnean ere, baldin eta puntu baten ondoren gertatzen bada, hala nola hitzarmen baten testuan:

BILDURIK

ALDE BATETIK, Miren Baleztana Zaldunbide, Osinalde SAren izenean (Artaleku 7, Lizarra [31200]. Tel.: 948 66 86 99)...

(...)

Edo zuzendari hitzaren eta aktore hitzaren laburdurak zuz. eta akt. badira ere, zinema-zuzendari baten izenaren aurretik Zuz. eta Akt. jarriko da, hurrenez hurren, film bati buruzko fitxa tekniko batean, paragrafo baten hasieran eta puntu baten ondoren gertatzen badira:

The Bridges of Madison County (1995)

Zuz.: Clint Eastwood. Akt.: Meryl Streep, Clint Eastwood

11 Letra etzana laburduretan

Laburtzen ari den adierazpena letra etzanez idaztekoa bada, letra etzanez idatziko da laburdura ere. Hala gertatzen da beste hizkuntza batzuetako laburdurak erabiltzen direnean. Adibidez, latinezkoak:

et al. (et alii)

ibid. (ibidem)

id. (idem)

N.B. (nota bene)

op. cit. (opere citato)

Badira salbuespen batzuk, dena dela. Testu orokorretan erabiltzen diren latinezko hitz eta laburdura gutxi batzuk mailegu etxekotuak dira, eta lexiko orokorreko hiztegietan agertzen dira. Horregatik, ez dira letra etzanez idazten. Adibidez:

etc. (et cetera)

vs (versus)

Bestalde, erabilera arrunteko latinezko laburdurak letra arruntez idatzi ohi dira, letra etzanez idatz badaitezke ere. Adibidez:

a.m. (ante meridiem)

p.m. (post meridiem)

P.D. (post data)

Azkenik, kontuan izan behar da etzanez idazten direla laburdurak erabilera metalinguistikoan, gainerakoak bezala. Adibidez:

Testu honetan, *arg.* laburdura *argitaletxe* hitzari dagokio.

12 Laburduraren puntua eta gainerako ortografia-markak

Forma bera badute ere, ez dira gauza bera laburdura-puntua eta esaldiak bereizteko puntua, erabilera desberdina baitute. Laburdura-puntua ez da puntuazio-marka bat; beraz, haren ondoren datorren hitza letra xehez hasita idazten da, non eta ez den izen berezi bat edo esaldiaren hasierako hitza.

Laburdura-puntua laburduraren parte da. Laburdura-puntua beste puntuazio-marka batzuen aurretik gertatzen denean, honela jokatu behar da:

12.1 Laburduraren ondoko puntua

Laburdura bat esaldiaren amaieran gertatzen denean, laburduraren puntua eta esaldiaren amaierako puntua batera gertatzen dira, eta puntu bakarra idazten da, ez bi. Adibidea:

Musika-mota guztiak: koralak, herri-kantuak, musika klasikoa, etab.

12.2 Laburduraren ondoko etenpuntuak

Laburdura baten ondoren etenpuntuak gertatzen badira, lau puntu idazten dira: laburdurarena eta etena adierazten duten hiru puntuak. Adibidez:

Hauek dira laburdurarik erabilienetako batzuk: etab., or., adib., iz....

Esaldiaren amaieran etab. edo etc. laburdura jartzen bada, ez da etenpunturik jartzen.

(EGOKIA) Zientzia-diziplina askotako profesionalak elkartuko dira: ingeniari-tza, kimika, ingurumena...

(EGOKIA) Zientzia-diziplina askotako profesionalak elkartuko dira: ingeniari-tza, kimika, ingurumena, etab.

(DESEGOKIA) Zientzia-diziplina askotako profesionalak elkartuko dira: ingeniari-tza, kimika, ingurumena.... etab.

(DESEGOKIA) Zientzia-diziplina askotako profesionalak elkartuko dira: ingeniari-tza, kimika, ingurumena, etab...

12.3 Laburduraren ondoko koma, puntu eta koma eta bi puntuak

Laburdura baten puntuaren ondoren, koma, puntu eta koma eta bi puntu idatz daitezke. Adibidez:

Inon, inondik, inora, etab., izan ere, baiezko ez diren perpausetan erabiltzen dira.

Denak joan ziren: aitona-amonak, anai-arrebak, etab.; inork ez zuen aukera galdu nahi.

Izpta.: Ane Sarriegi

P.D.: Ordenagailua eramango dut.

12.4 Laburduraren ondoko parentesia, marra luzea eta komatxoak

Laburdura bat amaierako parentesiaren, marra luzearen edo komatxoen aurrean gertatzen bada eta parentesi, marra luze edo komatxo horien ondoren esaldia amaitzen bada, laburdura-puntua eta esaldi-amaierako puntua, biak, idatzi behar dira.

Adibideak:

Bestalde, baditugu aniztasuna adierazten duten zenbatzaile batzuk (*ugari, makina bat, etab.*).

Bestalde, baditugu aniztasuna adierazten duten zenbatzaile batzuk —*ugari, makina bat, etab.*—.

Honela esan zidan: «Ekarri papera, liburua, boligrafoa, etab.».

13 Laburdurak esaldiaren hasieran

Testu normaletan, hobe litzateke esaldia laburdura batez ez hastea. Dena dela, estilo-hobespen bat besterik ez da, eta ez da, hobespen horri men egiteagatik, testua bihurritu behar. Nolanahi ere, beti dago aukera hitza edo hitz-multzoa laburtu gabe erabiltzeko. Adibidez, S. Mateo izan zen lehen ebanjelaria idatzi beharrean, San Mateo izan zen lehen ebanjelaria.

Dena dela, erlijio-liburu batean edo entziklopedia batean, adibidez, non maiz idazten baitira santuen izenak, egokia izan liteke laburdurarekin hastea esaldi bat. Adibidez:

(EGOKIA) S. Mateo, S. Marko, S. Lukas eta S. Joan dira lau ebanjelariak.

(EGOKIA) San Mateo, San Marko, San Lukas eta San Joan dira lau ebanjelariak.

Desegokia litzateke, nolanahi ere, testuan koherentziaz ez jokatzea hobespen ortotipografikoagatik:

(DESEGOKIA) San Mateo, S. Marko, S. Lukas eta S. Joan dira lau ebanjelariak.

Testu normaletan, dena dela, gutxitan gertatzen dira horrelakoak. Baina era askotako testuak daude, eta bilera-agiri batean, adibidez, non izen-deiturak askotan idatzi behar baitira, normala da inizialak erabiltzea. Maiz gertatuko dira esaldiaren hasieran, eta erabilera hori ez da gaitzestekoa. Adibidez:

A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta ahalak irakurri ditu.

A. Arkotxa euskaltzain osoak aurkeztu ditu oharra.

Era berean, historiako testu batean edo entziklopedia batean maiz ematen da data esaldiaren hasieran, mintzagai gisa, eta, testuinguru horretan, ohikoa da K.a. eta K.o. laburdurak esaldiaren hasieran gertatzea. Adibidez:

K.a. 1595ean, errege hititak Babiloniaren aurka ekin zion, eta sarraskituta utzi zuen hiria.

K.a. 30-K.o. 395 bitartean, Egipto Erromako probintzia izan zen.

14 Laburdurak ez du izan behar lerroko hitz bakarra

Ez da egokia testu batean laburdura izatea testu-lerroko hitz bakarra; hau da, paragrafoko azken lerroko hitz bakarra izatea laburdura. Hori gertatzen bada, hobe da hitz osoa idaztea. Kokagune horretan gerta daitezkeen laburdurak etab. eta etc. dira.

(EGOKIA) Hiri-zerbitzuen sareen eraikuntza errazten du: ura, elektrizitatea eta abar.

(DESEGOKIA) Hiri-zerbitzuen sareen eraikuntza errazten du: ura, elektrizitatea, etab.

Bada beste aukera bat, gaur egungo testu-prozesadoreetan ohikoa: zuriune banaezina jartzea laburduraren eta haren aurreko hitzaren artean (adibidean, ° sinboloaren bidez adierazten da zuriune banaezina):

(EGOKIA) Hiri-zerbitzuen sareen eraikuntza errazten du: ura, elektrizitatea, gasa, telefonoa,°etab.

15 Laburdura ez da bi testu-lerrotan banatu behar

Laburdura konposatua denean, haren osagaiak ez dira inoiz bi lerrotan banatuta idatzi behar, eta lerro-amaierako marratxoak ez da erabili behar laburdura bi lerrotan banatzeko. Hori ez gertatzeko, zuriune banaezina erabili behar da (adibidean, ° sinboloaren bidez adierazten da zuriune banaezina):

(EGOKIA) Obra honetan gehien erabiltzen diren laburdurak *or. (orrialde), etab. eta iz.°of. dira.*

(DESEGOKIA) Gehien erabiltzen diren laburdurak *or. (orrialde), etab. eta iz. of. dira.*

(DESEGOKIA) Gehien erabiltzen diren laburdurak *or. (orrialde), etab. eta iz.-of. dira.*

16 Laburdura eta hari dagokion terminoa ez dira bi lerrotan banandu behar

Laburdura eta hari dagokion terminoa elementu grafikoki independenteak dira, baina kontzeptualki elkartuta daude. Horregatik, ez da egokia testu-lerro desberdinetan banantzea. Bereizte hori galarazteko, zuriune banaezina erabili behar da (adibidean, ° sinboloaren bidez adierazten da zuriune banaezina):

(EGOKIA) Gatazka sozialen ondorioz, errepublika ahulduz joan zen K.a.°II. mendearen azken aldean.

(DESEGOKIA) Gatazka sozialen ondorioz, errepublika ahulduz joan zen K.a. II. mendearen azken aldean.

17 Laburdurak eta kasu-markak

Laburdurari, printzipioz, ez zaio kasu-markarik erantsi behar. Laburduren erabilerari buruzko atalean adierazi den moduan, komeni da laburduren erabilera, ahal den guztietan, testuinguru jakinetara mugatzea: tratamendu-formulak, gutun-azaletako

posta-helbideak, gutun formalen hasiera eta bukaera, edo adierazpen edo iragarki laburrak. Eta testu orokorretan ahalik eta gutxienik erabili behar dira. Horregatik, dena delakoagatik testu arrunt batean laburduraren bat jarri bada eta kasu-marka erantsi behar bazaio, laburduraren ordeztu gabeko hitza edo hitz-multzoa idatzi behar da, eta dagokion kasu-marka erantsi.

(EGOKIA) Alkate andrearen erabakia

(DESEGOKIA) Alkate and.aren erabakia

(EGOKIA) Borroka daude puntu askotan, ikastola, erlijio, politika eta abarretan.

(DESEGOKIA) Borroka daude puntu askotan, ikastola, erlijio, politika eta abarretan.

Guztiarekin ere, beharrezkoa gerta liteke inoiz laburdurari kasu-marka ezartzea. Adibidez, formulario batean, non espazioa txikia izaten baita, edo taula bateko gelaxken barnean, edo irudi eta plano teknikoaren legendetan.

Halaber izan liteke beharrezkoa edo komenigarria laburduraren bati kasu-marka ezartzea testu bereziren batean, behin eta berriro errepikatzen den hitzen batekin. Adibidez, historiako testu batean edo entziklopedia batean mende hitza erabili beharrean m. laburdura erabiliz gero hiru karaktere aurrezten dira. Gutxi da, baina entziklopedia batean milaka aldiz idatzi behar izaten dira mendeko, mendetik, mendean, mendera hitzak.

Eta badira nekez saihestu daitezkeen beste kasu batzuk, hala nola sozietate-mota adierazten duten izenen laburdura erdarazkoak, kanpoko eta hemengo enpresa eta konpainia askoren izenaren parte izan ohi direnak: Co. (company), Ltd. (limited), Corp. (corporation), Inc. (incorporated), Coop. (cooperativa) eta abar. Halakoetan, laburdurari kasu-marka ezarri beharra ez izateko itzurbidea enpresa, konpainia edo kideko hitzen bat aposizioan jartzea izan ohi da, baina ihesbide astungarria da, eta desegokia da behin eta berriro erabiltzeko.

Aipatutako kasu berezi horietan —eta ez, beraz, testu arruntetan— laburdurari kasu-marka ezarri beharra izanez gero, honela joka daiteke:

17.1 Marratxorik ez da behar

Laburdura-puntuak markatzen du laburduraren bukaera. Beraz, **ez da marratxorik erabili behar kasu-markarekin lotzeko**. Alegia, alferrikakoa litzateke .- marka bikoitz bat erabiltzea bi osagaien arteko muga adierazteko. Aski da, horretarako, laburdura-puntua. Antzera gertatzen da ordinaletan -garren adierazteko erabiltzen den puntuarekin: ez da haren ondoren marratxorik erabiltzen kasu-marka lotzeko.

(EGOKIA) Marine Current Turbines Ltd.ek Seagen turbina garatu du.

(DESEGOKIA) Marine Current Turbines Ltd.-ek Seagen turbina garatu du.

(EGOKIA) Zelofana Innovia Films Ltd.en marka erregistratua da.

(DESEGOKIA) Zelofana Innovia Films Ltd.-en marka erregistratua da.

Adibide gehiago:

(Co: company) Charles W. Scharf , Wells Fargo & Co.ko presidentea.

(Inc.: incorporated) Arne Sorenson, Marriott International Inc.eko zuzendaria.

(Coop.: cooperativa) Seikide S. Coop.k eta Gestindar S. Coop.k bat egitea erabaki dute.

(Corp.: corporation) 1991n, Shipping Corp.eko presidente izendatu zuten.

(Ltd.: limited) 2003an, Ingalaterran, Newall UK Ltd.eko operazioen koordinatzailea izan zen.

17.2 Kasu-marka jartzeko, laburtu gabeko hitza hartzen da kontuan, ez laburdura

Hasieran esan den moduan, laburdurak ez du existentziarik ahozko hizkuntzan, murriztapen grafikoa baino ez da, eta ahozko hizkuntzan osorik berreraikitzen da laburduraren jatorrian dagoen hitz edo unitate konplexua. Hori hartu behar da kontuan kasu-marka ezartzeko orduan. Hau da, **ez da kontuan hartu behar laburduraren azken letra bokala edo kontsonantea den, baizik eta laburtu gabeko hitza- edo hitz-multzoa bokalez edo kontsonantez bukatua den.**

(EGOKIA) XVII. m.an sortu zen Kuwait hiria.

(DESEGOKIA) XVII. m.ean sortu zen Kuwait hiria.

(EGOKIA) XV. m.ko; 1945eko mai.eko

(DESEGOKIA) XV. m.eko; 1945eko mai.ko

m. (mendea): laburdura kontsonantez amaitzen da, baina hitza bokalez.

mai. (maiatza): laburdura bokalez amaitzen da, baina hitza kontsonantez.

Laburdurak kasu-markarik ez duenean —eta hori da ohiko kasua—, laburdura ikusi eta hark ordeztzen duena absolutibo singularrean irakurri ohi da (alde batera utzita berez pluralekoak diren sigla gutxi batzuk eta beste zerbait ordeztzen dutenak, hau da, izen-sintagmen laburdura ez direnak), hau da, mugatzailea sarturik dagoela ulertuta. Adibidez, iz. of. ikusi eta izen ofiziala irakurtzen da (eta ez izen ofizial), edo uzt. ikusi eta uztaila irakurtzen da (eta ez uztaíl).

17.3 Kasu-markaren bat erabiliz gero, mugatzailea ere idazten da

Laburdurari kasu-markaren bat eransten zaionean, dena dela, mugatzailea ere idazten da, grafikoki desitxuratuta geldituko bailitzateke mugatzailearik gabe. Adibidez:

(EGOKIA) zuz.ari (zuzendariari); zuz.arekin (zuzendariarekin)

(DESEGOKIA) zuz.ri (zuzendariari); zuz.rekin (zuzendariarekin)

18 Sigla eta laburdura elkaturik

Laburtzapen-mota desberdinak dira laburdurak eta siglak, eta bakoitzak bere arauak eta erabilera-esparruak ditu. Ez da ezinezkoa, ordea, batere ohikoa ez bada ere, biak batera gertatzea hitz-elkarte batean. Adibidez, formulario batean hitz-elkarte hauek erabil litezke:

BEZ-zk. (balio erantsiaren gaineko zergaren zenbakia)

NAN-zk. (nortasun-agiri nazionalaren zenbakia)

19 Laburdura-zerrenda

19.1 Esanahia > laburdura

ESANAHIA	LABURDURA
abendua	abe.
absolutiboa	abs.
abstraktua	abstr.
abuztua	abu.
adberbioa	adb.
adberbio-lokuzioa	adb.-lok.
adeitasun osoz	ad. os.
adibidea, adibidez	adib.
adierazkorra	adkor.
adimen-koefizientea	a.k., a.-k.
aditza	ad.
aditz-erroa	aderro.
aditz-izena	adizen.
aditz-lokuzioa	ad.-lok.
aditzoina	adoin.
aditzondoa	adond.
adizlaguna	adlag.
adjektiboa	adj.
adlatiboa	adlat.
administratzailea	admtz.
Administrazioa	Admin. ⁶
aezkera	aezk.
aipamena	aip.
akitaniara	akit.
aktorea	akt.
akusatiboa	akus.
albaitaritzea	albait.
aldizkaria	aldz.
algebra	alj.
alkatea	alk.
altuera	alt.
amikuzera	am.
anatomia	anat.
andere; andre	and.
animalia	anim.
anonimoa	anon.
<i>ante meridiem</i>	a.m.
antonimoa	anton.

⁶ Legeak betearazteaz arduratzen diren erakundeen multzoa izendatzeko, letra larriz hasita idazten da.

ESANAHIA	LABURDURA
antzerkia	antz.
apartamentua	aptu.
apirila	api.
Arabako euskara	arab.
argazkilaritzea	arg.
argitaraldi	argit.
aritmetika	aritm.
arkeologia	arkeol.
arkitektura	arkit.
arrunkeria	arrunk.
arrunta	arr.
arte ederrak	art. ed.
arte grafikoak	art. graf.
artea	art. ⁷
artikulua	art. ⁷ , artik.
asimilazioa	asim.
aspektua	asp.
asteartea	ar.
asteazkena	az.
astelehena	al.
astrologia	astrol.
astronomia	astron.
atzizkia	atz.
aurretik atzerako	aurr. atz.
aurrizkia	aurr.
automobilismoa	autom.
auzapeza	azp.
auzoa	a.
auzunea	auz.
azalera	azal.
azaroa	aza.
babes ofiziala	b.o.
baino lehen	b.l.
baldin eta soilik baldin	b.s.b.
banatzailea	banatz.
barietatea (taxonomian)	var.
baserria	bas.
Batxilergoa	Batx. ⁸

⁷ art. laburdurak artea edo artikulua adieraz dezake. Testu berean ezin da laburdura homograforik erabili.

⁸ Hezkuntza-sistema batean formalki eraturako ziklo bat izendatzen duenean, letra larriz hasita idazten da.

ESANAHIA	LABURDURA
batzar arrunta	btz. arr.
batzar orokorra	btz. orok.
batzarkidea	btzkde.
batzarra	btz.
batzordea	batz.
bazkidea	bazk.
Baztango hizkera	bazt.
behe-mailakoa	beh.
behe-nafarrera	bnaf.
berrinprimatzea	berrinpr.
bertsogintza	berts.
besterik gabe	b.g.
Biblia	Bibl.
bibliografia	bibliogr.
bidaltzailea	bid.
bidea	b.
biderkatzailea	biderk.
bikoitirik gabe	bik. g.
biogeogr.	biogeografia
biokimika	biokim.
biologia	biol.
bipertsonala (adizkia)	biperts.
bizkaiera	bizk.
biziduna	bizid.
bizigabea	bizig.
biztanlea	bizt.
blokea	bl.
bolumena	bol.
botanika	bot.
bukaera onari baldintzatuta	b.o.b.
bulegoa	bul.
bulego-zenbakia	bul. zk., bul.-zk.
<i>circa</i>	<i>ca.</i>
<i>confer</i>	<i>cf., cfr.</i>
copyrighta	cop.
datarik gabe	d.g.
datiboa	dat.
departamentua	dptu.
deskontua	dtu.
determinatzailea	det.
diametroa	diam.
dibisioa	dib.
diptongoa	dipt.
diputatu nagusia	diptu. nag.
diputatua	diptu.
diputazioa	dip.

ESANAHIA	LABURDURA
disimilazioa	disim.
doktorea	dk.
dokumentua	dok.
ebaketa-erreminta	eb. er., eb.-er.
eboluzioa	ebol.
edizioa	ed.
egiaztagiria	egiazt.
egoera zibila	e.z.
eguna	e. ⁹
egunik gabe	e.g. ¹⁰
ekaina	eka.
ekialdea	eki.
ekologia	ekol.
ekonomia	ekon.
elektrizitatea	elektr.
elektronika	elektron.
elkartea	elk.
emakumezkoa	emak.
enpresa	enpr.
entitatea	ent.
erabil	e. ⁵
eraikuntza	eraik.
erakundea	erak. ¹¹
erakuslea	erak. ¹¹
eranskina	er.
erdara	erd.
ergatiboa	erg., ergat.
erkidegoa	erk.
erlatiboa, erlatibozko esaldia	erlat.
erlijioa	erl.
erreferentzia	erref.
errepidea	errep. ¹²
errepublika	errep. ¹²
erronkaria	erronk.
esaera zaharra	esr. zah.
esate baterako	e.b.

⁹ e. laburdurak eguna edo erabil adieraz dezake. Testu berean ezin da laburdura homograforik erabili.

¹⁰ e.g. laburdurak egunik gabe edo *exempli gratia* adieraz dezake. Testu berean ezin da laburdura homograforik erabili.

¹¹ erak. laburdurak erakundea edo erakuslea adieraz dezake. Testu berean ezin da laburdura homograforik erabili.

¹² errep. laburdurak errepidea edo errepublika adieraz dezake. Testu berean ezin da laburdura homograforik erabili.

ESANAHIA	LABURDURA
eskuina; eskuinaldea	esk.
eskuordetzaren bidez	E.B.
espedientea	esp.
espeziea	sp.
espezieak	spp.
estatistika	estat.
<i>et alii</i>	<i>et al.</i>
<i>et cetera</i>	etc.
eta abar	etab.
eta hurrengoak	e.h.
etnologia	etnol.
etorbidea	etorb.
etxe-multzoa	e.m., e.-m.
euskalduna	eusk.
<i>exempli gratia</i>	<i>e.g.</i> ¹⁰
ezkerra; ezkerrekoa	ezk.
faktura	fra.
familia (taxonomian)	fam.
filosofia	fil. ¹³
filuma (taxonomian)	fil. ¹³
fisika	fis.
fitogeografia	fitogeogr.
folklore	folkl.
fonetika	fonet.
foru-agindua	F. Ag. ¹⁴
foru-araua	F. Ar. ¹⁴
foru-dekretua	F. D. ¹⁴
foru-diputatua	f. dipt., f.-dipt.
frai	fr. ¹⁵
frantsesa	fr. ¹⁵
futbola	futb.
galdegaia	galdeg.
galtzada	galtz.
garaiera	gar.
garraioa	garr.
gaskoia	gask.
gastua	gtu.
gaur egun	g.e.

¹³ fil. laburdurak filosofia edo filuma adieraz dezake. Testu berean ezin da laburdura homograforik erabili.

¹⁴ Adiera generikoan ez litzateke letra larriz hasita idatziko, baina zenbaki batekin batera izendatzen denean (eta testuinguru horretan erabili ohi da laburdura), zuzenbide-arau jakin bat izendatzen du eta letra larriz hasita idazten da.

¹⁵ fr. laburdurak frai edo frantsesa adieraz dezake. Testu berean ezin da laburdura homograforik erabili.

ESANAHIA	LABURDURA
gaur gutxi erabilia	g. g. er.
gaztelania	gatz.
geltokia	gelt.
generoa	gen. ¹⁶
genitiboa	gen. ¹⁶
geografia	geogr.
geologia	geol.
gipuzkera	gip.
Gipuzkoako bizkaiera	Gip. bizk.
Gipuzkoako nafarrera	Gip. naf.
gizonezkoa	giz.
gubernua	gob.
goian bego; goian beude	g.b.
goi-nafarrera	naf.
gorputz-hezkuntza	g. hezk., g.-hezk.
grafikoa	graf.
gutxi erabilia	g. er.
gutxi gorabehera	g.g.b.
guztira	guzt.
halaber	hal.
handigarria	hand.
hau da	h.d.
haur-hizkera	haur.
hedaduraz	hed.
Hegoaldea	Heg.
herria	her.
herri-mailakoa	herr.
hezkuntza	hezk.
hiribidea	hirib.
hiriburua	hbru.
historia	hist.
hitzez hitz	h.h.
hizkuntza	hizk.
hizkuntzalaritza	hizkl.
hobe	h.
hurrenez hurren	hr. hr.
hurrengoak	hurr.
<i>ibidem</i>	<i>ibid.</i>
<i>id est</i>	<i>i.e.</i>
idazkaria	idazk.
<i>idem</i>	<i>id.</i>
igandea	ig.
ikus	ik.

¹⁶ gen. laburdurak generoa edo genitiboa adieraz dezake. Testu berean ezin da laburdura homograforik erabili.

ESANAHIA	LABURDURA
ikus gainera	ik. g.
industria	ind.
industrialdea	indald.
inesiboa	ines.
informatika	inform.
infraklasea	infrakl.
ingelesa	ing.
inprimakia	inpr. ¹⁷
inprimategia	inpr. ¹⁷
inprimategirik gabe	i.g.
instrumentala	instr.
interjekzioa	interj.
Iparraldea	lpar.
iragangaitza (aditza)	igaitz.
iragankorra (aditza)	igkor.
iraila	ira.
irakaskuntza	irakask.
irakaslea	irak.
irregularra	irreg.
irudia	ird.
irudizko erabilera	irud.
italiera	it.
itsasketa	itsask.
Itun Berria	I.B.
Itun Zaharra	I.Z.
itzulpena	itz.
itzultzailearen oharra	itzle. oh.
izen arrunta	iz. arr.
izen ofiziala	iz. of.
izena	iz.
izenburua	izenb.
izengoitia	izg.
izenlaguna	izlag.
izenondoa	izond.
izenordaina	izord.
izenpetua	izpta.
izenpetzailea	izptz.
Jainkoak gorde zaitzala luzaro	J.g.z.l.
jaioa	j.
jaiotza-data	j.d., j.-d.
jaiotza-eguna; jaioteguna	j.e.
jasoa	jas.
jatorria, jatorrizkoa	jat.

¹⁷ inpr. laburdurak inprimakia edo inprimategia adieraz dezake. Testu berean ezin da laburdura homograforik erabili.

ESANAHIA	LABURDURA
jatorrizko argitaraldia	jat. argit.
jatorrizko benetakoa izena	j.b.i.
jatorrizko bertsioa	j.b.
jatorrizko bertsioa azpidatziekin	j.b.a.
jatorrizko deitura	j. di.
jatorrizko edizioa	jat. ed.
jatorrizko izena	j.i.
jatorrizko izenburua	jat. izenb.
jauna	jn.
jauna/andrea	jn./and.
juntagailua	junt.
kale nagusia	k. nag.
kale; karrika	k.
kaligrafia	kaligr.
kantitatea	kant.
kantonamendua	ktdu.
kapitulua	kap.
kardinala	kard.
kartografia	kartogr.
kimika	kim.
kirola	kirol.
klasea	kl.
klasikoa	klas.
koaderno	koad.
Kode Zibila	Kd. Zib.
kodea	kd.
konkretua	konkr.
konpainia	konp.
kontseilaria	kontsri.
kontsonantea	konts.
kontu korrontea	ktu. kte.
kontura	kra.
kooperatiba	koop.
koordinatzailea	koord.
kopurua	kop.
kreditua	kred.
Kristo aurreko; Kristo aurretik	K.a.
Kristo ondoko; Kristo ondoren	K.o.
kronologia	kronol.
laburdura	lab.
lagunartekoa	lgart.
lanbidea	lanb.
lapurtera	lap.
larunbata	lr.
latina	lat.

ESANAHIA	LABURDURA
lege-gordailua	L.G. ¹⁸
lehendakaria	lehend.
liburua	lib.
liburukia	libk.
literalki	lit.
literatura	liter.
logika	log.
lokailua	lok.
luzapena	luzp.
luzera	luz.
maiatza	mai.
markatua	mark.
marrazketa	marr.
martxo	mar.
matematika	mat.
maximoa	max.
medikuntza	med.
mekanika	mekan.
mendea	m.
mendebaldea	mendeb.
merkataritza	merkat.
metalurgia	metal.
metatesia	metat.
meteorologia	meteorol.
mikologia	mikol.
mikrobiologia	mikrob.
militarra	mil.
mineralogia	miner.
minimoa	min.
mintzagaia	mintz.
moderno	mod.
monofonikoa	monof.
mugagabea	mugag.
mugatua	mug.
musika	mus.
Nafarroako gipuzkera	Naf. gip.
nagusia	nag.
nazioartekoa	nart.
negatiboa	neg.
nekazaritza	nekaz.
nominatiboa	nom.
<i>nota bene</i>	<i>N.B.</i>
objektua	obj.

¹⁸ Lerro-hasieran kokatu ohi da laburdura, ez testuaren barnean. Horregatik du hasierako letra larria, nahiz eta, berez, izen arrunta izan.

ESANAHIA	LABURDURA
oker edo hutsik ezean	o. edo h.e.
onomastika	onom.
onomatopeia	onomat.
ontzat emana	O.E.
optika	opt.
<i>opus</i>	<i>op.</i>
<i>opus citatum, opera citata</i>	<i>op. cit.</i>
ordena	ord. ¹⁹
ordinala	ord. ¹⁹
orokorra	orok.
orrialdea, orrialdeak	or. ²⁰
osteguna	og.
ostirala	or. ²⁰
otsaila	ots.
oxitonoa	oxit.
pabiloia	pab.
paleontologia	paleont.
partikularra	part. ²¹
partitiboa	partit.
partizipioa	part. ²¹
pasabidea	pasab.
pasealekua	pas.
pedagogia	pedag.
pediatria	pediatr.
peioratiboa	peior.
perpaua	perp.
pertsona	perts.
plaza	pl. ²²
plural hurbila	pl. hurb.
plurala	pl. ²²
poligonoa	pol. ²³
politika	pol. ²³
portua	ptu.
positiboa	pos.

¹⁹ ord. laburdurak ordena edo ordinala adieraz dezake. Testu berean ezin da laburdura homografik erabili.

²⁰ or. laburdurak orrialdea edo ostirala adieraz dezake. Testu berean ezin da laburdura homografik erabili.

²¹ part. laburdurak partikularra edo partizipioa adieraz dezake. Testu berean ezin da laburdura homografik erabili.

²² pl. laburdurak plaza edo plurala adieraz dezake. Testu berean ezin da laburdura homografik erabili.

²³ pol. laburdurak poligonoa edo politika adieraz dezake. Testu berean ezin da laburdura homografik erabili.

ESANAHIA	LABURDURA
<i>post data</i>	P.D.
<i>post meridiem</i>	p.m.
<i>post scriptum</i>	P.S.
posta	p. ²⁴
posta-kutxa	P.k., P.-k. ²⁵
postposizioa	postpos.
predikatu osagarria	pred.
presidentea	pres.
pribilegioa	prib.
probintzia	prob.
propioa	prop.
psikologia	psikol.
puntua	p. ²⁴
sailburua	sb.
sailburuordea	sbo.
salmenta	salm.
San	S.
Santa	Sta.
singularra	sing.
sintetikoa	sint.
sistema	sist.
solairua	sol.
soziatiboa	soziat.
soziologia	soziol.
<i>sub verbo</i>	s.v.
subbarietatea	subvar.
subdibisioa	subdib.
subespezia	subsp.
subfamilia	subfam.
subfiluma	subfil.
subgeneroa	subgen.
subjektua	subj.
subklasea	subkl.
subordena	subord.
superfamilia	superfam.
superklasea	superkl.
superlatiboa	superl.
superordena	superord.
taoismoa	tao.
tauromakia	taurom.
taxonomia	taxon.

²⁴ p. laburdurak posta edo puntua adieraz dezake. Testu berean ezin da laburdura homografik erabili.

²⁵ Lerro-hasieran kokatu ohi da laburdura, ez testuaren barnean, gutun-azaletan eta formularioetan. Horregatik du hasierako letra larria, nahiz eta, berez, izen arrunta izan.

ESANAHIA	LABURDURA
teknologia	teknol.
telebista	tb.
telefonoa	tel., tf.
teologia	teol.
Testamentu Berria	T.B.
Testamentu Zaharra	T.Z.
titulua	tit.
toponimoa, toponimia	top. ²⁶
transferentzia	transf.
txikigarria	txik.
udalerrria	udal.
unibertsitatea	unib.
unitatea	unit.
urria	urr.
urtarrila	urt.
urtea	u.
uztaila	uzt.
<i>verbi gratia</i>	v. gr.
versus	vs
<i>vide</i>	v.
zabalera	zab.
zaharkitua, zaharra	zah.
zaraitzuera	zar.
zatikia	zat.
zeharbidea	zehb.
zeharkalea	zhk.
zenbakia	zenb., zk.
zenbakirik gabe	z.g.
zenbatekoa	zbko.
zenbatzailea	zenbtz.
zentimoa	zm.
zibernetika	zibern.
Zigor Kodea	Zig. Kd.
zinema	zin.
zirkulazioa	zirk.
ziurtagiria	ziurtg.
zoologia	zool.
zuberera	zub.
zumardia	zum.
zuzenbidea	zuz. ²⁷
zuzendaria	zuz. ²⁷

²⁶ top. laburdurak toponimoa edo toponimia adieraz dezake. Testu berean ezin da laburdura homografik erabili.

²⁷ zuz. laburdurak zuzenbidea edo zuzendaria adieraz dezake. Testu berean ezin da laburdura homografik erabili.

19.2 Laburdura > esanahia

LABURDURA	ESANAHIA
a.	auzoa
a.k, a.-k.	adimen-koefizientea
a.m.	<i>ante meridiem</i>
abe.	abendua
abs.	absolutiboa
abstr.	abstraktua
abu.	abuztua
ad.	aditza
ad.-lok.	aditz-lokuzioa
ad. os.	adeitasun osoz
adb.	adberbioa
adb.-lok.	adberbio-lokuzioa
aderro.	aditz-erroa
adib.	adibidez, adibidea
adizen.	aditz-izena
adj.	adjektiboa
adkor.	adierazkorra
adlag.	adizlaguna
adlat.	adlatiboa
Admin. ²⁸	Administrazioa
admtz.	administratzailea
adoin.	aditzoina
adond.	aditzondoa
aezk.	aezkeria
aip.	aipamena
akit.	akitaniara
akt.	aktorea
akus.	akusatiboa
al.	astelehena
albait.	albaitaritza
aldz.	aldizkaria
alj.	algebra
alk.	alkatea
alt.	altuera
am.	amikuzera
anat.	anatomia
and.	andere; andre
anim.	animalia
anon.	anonimoa
anton.	antonimoa

²⁸ Legeak betearazteaz arduratzen diren erakundeen multzoa izendatzeko, letra larriz hasita idazten da.

LABURDURA	ESANAHIA
antz.	antzerkia
api.	apirila
aptu.	apartamentua
ar.	asteartea
arab.	Arabako euskara
arg.	argazkilaritza
argit.	argitaraldi
aritm.	aritmetika
arkeol.	arkeologia
arkit.	arkitektura
arr.	arrunta
arrunk.	arrunkeria
art. ²⁹	arte
art. ed.	arte ederrak
art. graf.	arte grafikoak
art. ²⁹ , artik.	artikulua
asim.	asimilazioa
asp.	aspektua
astrol.	astrologia
astron.	astronomia
atz.	atzikia
aurr.	aurrizkia
aurr. atz.	aurretik atzerako
autom.	automobilismoa
auz.	auzunea
az.	asteazkena
aza.	azaroa
azal.	azalera
azp.	auzapeza
b.	bidea
b.g.	besterik gabe
b.l.	baino lehen
b.o.	babes ofiziala
b.o.b.	bukaera onari baldintzatuta
b.s.b.	baldin eta soilik baldin
banatz.	banatzailea
bas.	baserria
Batx. ³⁰	Batxilergoa
batz.	batzordea

²⁹ art. laburdurak artea edo artikulua adieraz dezake. Testu berean ezin da laburdura homograforik erabili.

³⁰ Hezkuntza-sistema batean formalki eraturako ziklo bat izendatzen duenean, letra larriz hasita idazten da.

LABURDURA	ESANAHIA
bazk.	bazkidea
bazt.	Baztango hizkera
beh.	behe-mailakoa
berrinpr.	berrinprimatzea
berts.	bertsogintza
Bibl.	Biblia
bibliogr.	bibliografia
bid.	bidaltzailea
biderk.	biderkatzailea
bik. g.	bikoitirik gabe
biogeografia	biogeogr.
biokim.	biokimika
biol.	biologia
biperts.	(adizki) bipertsonala
bizid.	biziduna
bizig.	bizigabea
bizk.	bizkaiera
bizt.	biztanlea
bl.	blokea
bnaf.	behe-nafarrera
bol.	bolumena
bot.	botanika
btz.	batzarra
btz. arr.	batzar arrunta
btz. orok.	batzar orokorra
btzkde.	batzarkidea
bul.	bulegoa
bul. zk., bul.-zk.	bulego-zenbakia
ca.	<i>circa</i>
cf., cfr.	<i>confer</i>
cop.	copyrighta
d.g.	datarik gabe
dat.	datiboa
det.	determinatzailea
diam.	diametroa
dib.	dibisioa
dip.	diputazioa
dipt.	diptongoa
diptu.	diputatua
diptu. nag.	diputatu nagusia
disim.	disimilazioa
dk.	doktorea
dok.	dokumentua
dptu.	departamentua
dtu.	deskontua

LABURDURA	ESANAHIA
e. ³¹	eguna
e. ³¹	erabil
e.b.	esate baterako
E.B. ³²	eskuordetzaren bidez
e.g. ³³	<i>exempli gratia</i>
e.g. ³³	egunik gabe
e.h.	eta hurrengoak
e.m., e.-m.	etxe-multzoa
e.z.	egoera zibila
eb. er., eb.-er.	ebaketa-erreminta
ebol.	eboluzioa
ed.	edizioa
egiazt.	egiaztatzea
eka.	ekaina
eki.	ekialdea
ekol.	ekologia
ekon.	ekonomia
elektr.	elektrozitatea
elektron.	elektronika
elk.	elkartea
emak.	emakumezkoa
enpr.	enpresa
ent.	entitatea
er.	eranskina
eraik.	eraikuntza
erak. ³⁴	erakuslea
erak. ³⁴	erakundea
erd.	erdara
erg., ergat.	ergatiboa
erk.	erkidegoa
erl.	erlijioa
erlat.	erlatiboa, erlatibozko esaldia
erref.	erreferentzia
errep. ³⁵	errepidea

³¹ e. laburdurak eguna edo erabil adieraz dezake. Testu berean ezin da laburdura homograforik erabili.

³² Lerro-hasieran kokatu ohi da laburdura, ez testuaren barnean. Horregatik du hasierako letra larria, nahiz eta, berez, izen arrunta izan.

³³ eg. laburdurak *exempli gratia* edo egunik gabe adieraz dezake. Testu berean ezin da laburdura homograforik erabili.

³⁴ erak. laburdurak erakundea edo erakuslea adieraz dezake. Testu berean ezin da laburdura homograforik erabili.

³⁵ errep. laburdurak errepidea edo errepublika adieraz dezake. Testu berean ezin da laburdura homograforik erabili.

LABURDURA	ESANAHIA
errep. ³⁵	errepublika
erronk.	erronkaria
esk.	eskuina; eskuinaldea
esp.	espedientea
esr. zah.	esaera zaharra
estat.	estatistika
<i>et al.</i>	<i>et alii</i>
etab.	eta abar
etc.	<i>et cetera</i>
etnol.	etnologia
etorb.	etorbidea
eusk.	euskalduna
ezk.	ezkerra; ezkerria
F. Ag. ³⁶	foru-agindua
F. Ar. ³⁷	foru-araua
F. D. ³⁸	foru-dekretua
f. dipt., f.-dipt.	foru-diputatua
fam.	familia
fil. ³⁹	filosofia
fil. ³⁹	filuma
fis.	fisika
fitogeogr.	fitogeografia
folkl.	folklorea
fonet.	fonetika
fr. ⁴⁰	frantsesa
fr. ⁴⁰	frai
fra.	faktura
futb.	futbola
g. g. er.	gaur gutxi erabilia
g. hezk., g.-hezk.	gorputz-hezkuntza
g.b.	goian bego; goian beude
g.e.	gaur egun
g. er.	gutxi erabilia
g.g.b.	gutxi gorabehera
galdeg.	galdegaia
galtz.	galtzada
gar.	garaiera

^{36, 37, 38} Adiera generikoan ez litzateke letra larriz hasita idatziko, baina zenbaki batekin batera izendatzen denean (eta testuinguru horretan erabili ohi da laburdura), zuzenbide-arau jakin bat izendatzen du eta letra larriz hasita idazten da.

³⁹ fil. laburdurak filosofia edo filum adieraz dezake. Testu berean ezin da laburdura homografik erabili.

⁴⁰ fr. laburdurak frantsesa edo frai adieraz dezake. Testu berean ezin da laburdura homografik erabili.

LABURDURA	ESANAHIA
garr.	garraioa
gask.	gaskoia
gazt.	gaztelania
gelt.	geltokia
gen. ⁴¹	generoa
gen. ⁴¹	genitiboa
geogr.	geografia
geol.	geologia
gip.	gipuzkera
Gip. bizk.	Gipuzkoako bizkaiera
Gip. naf.	Gipuzkoako nafarrera
giz.	gizonezkoa
gob.	gobernua
graf.	grafikoa
gtu.	gastua
guzt.	guztira
h.	hobe
h.d.	hau da
h.h.	hitzez hitz
hal.	halaber
hand.	handigarria
haur.	haur-hizkera
hbru.	hiriburua
hed.	hedaduraz
Heg.	Hegoaldea
her.	herria
herr.	herri-mailakoa
hezk.	hezkuntza
hirib.	hiribidea
hist.	historia
hizk.	hizkuntza
hizkl.	hizkuntzalaritza
hr. hr.	hurrenez hurren
hurr.	hurrengoak
I.B.	Itun Berria
<i>i.e.</i>	<i>id est</i>
i.g.	inprimategirik gabe
I.Z.	Itun Zaharra
<i>ibid.</i>	<i>ibidem</i>
<i>id.</i>	<i>idem</i>
idazk.	idazkaria
ig.	igandea
igaitz.	(aditz) iragangaitza

⁴¹ gen. laburdurak generoa edo genitiboa adieraz dezake. Testu berean ezin da laburdura homografik erabili.

LABURDURA	ESANAHIA
igkor.	(aditz) iragankorra
ik.	ikus
ik. g.	ikus gainera
ind.	industria
indald.	industrialdea
ines.	inesiboa
inform.	informatika
infrakl.	infraklasea
ing.	ingelesa
inpr. ⁴²	inprimakia
inpr. ⁴²	inprimategia
instr.	instrumentala
interj.	interjekzioa
lpar.	lparaldea
ira.	iraila
irak.	irakaslea
irakask.	irakaskuntza
ird.	irudia
irreg.	irregularra
irud.	irudizko erabilera
it.	italiera
itsask.	itsasketa
itz.	itzulpena
itzle. oh.	itzultzailearen oharra
iz.	izena
iz. arr.	izen arrunta
iz. of.	izen ofiziala
izenb.	izenburua
izg.	izengoitia
izlag.	izenlaguna
izond.	izenondoa
izord.	izenordaina
izpta.	izenpetua
izptz.	izenpetzailea
j.	jaioa
j. di.	jatorrizko deitura
j.b.	jatorrizko bertsioa
j.b.a.	jatorrizko bertsioa azpidatziekin
j.b.i.	jatorrizko benetako izena
j.d., j.-d.	jaiotza-data
j.e.	jaiotza-eguna; jaioteguna
J.g.z.l.	Jainkoak gorde zaitzala luzaro
j.i.	jatorrizko izena

⁴² inpr. laburdurak inprimakia edo inprimategia adieraz dezake. Testu berean ezin da laburdura homograforik erabili.

LABURDURA	ESANAHIA
jas.	jasoa
jat.	jatorria, jatorrizkoa
jat. argit.	jatorrizko argitaraldia
jat. ed.	jatorrizko edizioa
jat. izenb.	jatorrizko izenburua
jn.	jauna
jn./and.	jauna/andrea
junt.	juntagailua
k.	kale; karrika
k. nag.	kale nagusia
K.a.	Kristo aurreko; Kristo aurretik
K.o.	Kristo ondoko; Kristo ondoren
kaligr.	kaligrafia
kant.	kantitatea
kap.	kapitulua
kard.	kardinala
kartogr.	kartografia
kd.	kodea
Kd. Zib.	Kode Zibila
kim.	kimika
kirol.	kirola
kl.	klasea (taxonomian)
klas.	klasikoa
koad.	koaderno
konkr.	konkretua
konp.	konpainia
konts.	kontsonantea
kontsri.	kontseilaria
koop.	kooperatiba
koord.	koordinatzailea
kop.	kopurua
kra.	kontura
kred.	kreditua
kronol.	kronologia
ktdu.	kantonamendua
ktu. kte.	kontu korrontea
L.G. ⁴³	lege-gordailua
lab.	laburdura
lanb.	lanbidea
lap.	lapurtera
lat.	latina
lehend.	lehendakaria
lgart.	lagunartekoa

⁴³ Lerro-hasieran kokatu ohi da laburdura, ez testuaren barnean. Horregatik du hasierako letra larria, nahiz eta, berez, izen arrunta izan.

LABURDURA	ESANAHIA
lib.	liburua
libk.	liburukia
lit.	literalki
liter.	literatura
log.	logika
lok.	lokailua
lr.	larunbata
luz.	luzera
luzp.	luzapena
m.	mendea
mai.	maiatza
mar.	martxoa
mark.	markatua
marr.	marrazketa
mat.	matematika
max.	maximoa
med.	medikuntza
mekan.	mekanika
mendeb.	mendebaldea
merkat.	merkataritza
metal.	metalurgia
metat.	metatesia
meteorol.	meteorologia
mikol.	mikologia
mikrob.	mikrobiologia
mil.	militarra
min.	minimoa
miner.	mineralogia
mintz.	mintzagaia
mod.	moderno
monof.	monofonikoa
mug.	mugatua
mugag.	mugagabea
mus.	musika
<i>N.B.</i>	<i>nota bene</i>
naf.	goi-nafarrera
Naf. gip.	Nafarroako gipuzkera
nag.	nagusia
nart.	nazioartekoa
neg.	negatiboa
nekaz.	nekazaritza
nom.	nominatiboa
o. edo h.e.	oker edo hutsik ezean
O.E.	ontzat emana
obj.	objektua
og.	osteguna
onom.	onomastika

LABURDURA	ESANAHIA
onomat.	onomatopeia
<i>op.</i>	<i>opus</i>
<i>op. cit.</i>	<i>opus citatum, opera citata</i>
opt.	optika
or. ⁴⁴	ostirala
or. ⁴⁴	orrialdea, orrialdeak
ord. ⁴⁵	ordena (taxonomian)
ord. ⁴⁵	ordinala
orok.	orokorra
ots.	otsaila
oxit.	oxitonoa
p. ⁴⁶	posta
p. ⁴⁶	puntua
P.k., P.-k. ⁴⁷	posta-kutxa
P.D.	<i>post data</i>
p.m.	<i>post meridiem</i>
<i>P.S.</i> ⁴⁸	<i>post scriptum</i>
pab.	pabiloia
paleont.	paleontologia
part. ⁴⁹	partikularra
part. ⁴⁹	partizipioa
partit.	partitiboa
pas.	pasealekua
pasab.	pasabidea
pedag.	pedagogia
pediatr.	pediatria
peior.	peioratiboa
perp.	perpauza
perts.	pertsona
pl. ⁵⁰	plaza

⁴⁴ or. laburdurak ostirala edo orrialdea adieraz dezake. Testu berean ezin da laburdura homografik erabili.

⁴⁵ ord. laburdurak ordena edo ordinala adieraz dezake. Testu berean ezin da laburdura homografik erabili.

⁴⁶ p. laburdurak posta edo puntua adieraz dezake. Testu berean ezin da laburdura homografik erabili.

⁴⁷ Lerro-hasieran kokatu ohi da laburdura, ez testuaren barnean, gutun-azaletan eta formularioetan. Horregatik du hasierako letra larria, nahiz eta, berez, izen arrunta izan.

⁴⁸ Lerro-hasieran kokatu ohi da laburdura, ez testuaren barnean. Horregatik du hasierako letra larria, nahiz eta, berez, izen arrunta izan.

⁴⁹ part. laburdurak partikularra edo partizipioa adieraz dezake. Testu berean ezin da laburdura homografik erabili.

LABURDURA	ESANAHIA
pl. ⁵⁰	plurala
pl. hurb.	plural hurbila
pol. ⁵¹	poligonoa
pol. ⁵¹	politika
pos.	positiboa
postpos.	postposizioa
pred.	predikatu osagarria
pres.	presidentea
prib.	pribilegioa
prob.	probintzia
prop.	propioa
psikol.	psikologia
ptu.	portua
S.	San
s.v.	<i>sub verbo</i>
salm.	salmenta
sb.	sailburua
sbo.	sailburuordea
sing.	singularra
sint.	sintetikoa
sist.	sistema
sol.	solairua
soziat.	soziatiboa
soziol.	soziologia
sp.	espeziea
spp.	espezieak
Sta.	Santa
subdib.	subdibisioa
subfam.	subfamilia
subfil.	subfiluma
subgen.	subgeneroa
subj.	subjektua
subkl.	subklasea
subord.	subordena
subsp.	subespeziea
subvar.	subbarietatea
superfam.	superfamilia
superkl.	superklasea
superl.	superlatiboa
superord.	superordena
T.B.	Testamentu Berria

⁵⁰ pl. laburdurak plaza edo plurala adieraz dezake. Testu berean ezin da laburdura homografik erabili.

⁵¹ pol. laburdurak poligonoa edo politika adieraz dezake. Testu berean ezin da laburdura homografik erabili.

LABURDURA	ESANAHIA
T.Z.	Testamentu Zaharra
tao.	taoismoa
taurom.	tauromakia
taxon.	taxonomia
tb.	telebista
teknol.	teknologia
tel., tf.	telefonoa
teol.	teologia
tf., tel.	telefonoa
tit.	titulua
top. ⁵²	toponimoa, toponimia
transf.	transferentzia
txik.	txikigarria
u.	urtea
udal.	udalerrria
unib.	unibertsitatea
unit.	unitatea
urr.	urria
urt.	urtarrila
uzt.	uztaila
v.	<i>vide</i>
v. gr.	<i>verbi gratia</i>
var.	barietatea (taxonomian)
vs	versus
z.g.	zenbakirik gabe
zab.	zabalera
zah.	zaharkitua, zaharra
zar.	zaraitzueria
zat.	zatikia
zbko.	zenbatekoa
zehb.	zeharbidea
zenb., zk.	zenbakia
zenbtz.	zenbatzailea
zhk.	zeharkalea
zibern.	zibernetika
Zig. Kd.	Zigor Kodea
zin.	zinema
zirk.	zirkulazioa
ziurtg.	ziurtagiria
zk.; zenb.	zenbakia
zm.	zentimoa
zool.	zoologia
zub.	zuberera
zum.	zumardia

⁵² top. laburdurak toponimoa edo toponimia adieraz dezake. Testu berean ezin da laburdura homografik erabili.

LABURDURA	ESANAHIA
zuz. ⁵³	zuzenbidea
zuz. ⁵³	zuzendaria

⁵³ zuz. laburdurak zuzenbidea edo zuzendaria adieraz dezake. Testu berean ezin da laburdura homograforik erabili.

Siglak

1 Siglak zer diren

Adierazpen gutxi-asko konplexu bat (ia beti hitz batez baino gehiagoz osatutako izen-sintagma bat) osatzen duten hitzen inzialekin osatutako hitzari deritzo sigla⁵⁴. Adibidez, Bizkaiko Ikastolen Elkartea izeneko erakundearen sigla erakunde horren izenak dituen hiru hitzen inzialak hartu eta hitz horien hurrenkera berean jarrita osatzen da:

[izena] **B**izkaiko **I**kastolen **E**lkartea ⇒ [sigla] **BIE**

Sigla eratzeko, adierazpenaren hitz guztien inzialak baliatu ohi dira, baina hitz nagusiak bakarrik erabilia ere eratu daitezke (hau da, eduki lexikorik ez dutenak, hala nola postposizio askeak eta juntagailuak, baztertuta). Adibidez, AEK eta AHT siglek laburtzen duten sintagmako hitz guztien inzialak dituzte (Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea eta abiadura handiko tren, hurrenez hurren) eta LPL eta BEZ siglek, berriz, hitz nagusiak bakarrik (Lan Prozedurari buruzko Legea eta balio erantsiaren gaineko zerga, hurrenez hurren).

Hitza digrama batez hasten bada, ez da osorik hartzen (laburduretan, berriz, bai), eta lehen letra baino ez da hartzen. Adibidez:

ETE (**e**npresa **t**xiki eta **e**rtain)

OTI (**o**sasun-**t**xartel **i**ndibidual)

Siglak ordezkatzeko duena, ia beti, hitz batez baino gehiagoz osatutako adierazpen bat izaten da; ez da ezinezkoa, dena dela, hitz bakar batetik sigla bat ateratzea, baina, siglaren oinarria den hitzak, halakoetan, osagai bat baino gehiago izan ohi ditu. Adibidez, TB (**t**ele**b**ista), EKG (**e**lektro**k**ardiograma), LSD (**L**yserg**s**äure**d**iethylamid), EPO (**e**ritrop**o**ietina). Eta zientziaren eta teknologiaren arloan ohikoa da hitz baten osagaien (edo osagai batzuen) lehen letra hartzea sigla

⁵⁴ *Euskaltzaindiaren Hiztegia:*

sigla iz. (Singularrean nahiz pluralean). Zenbait hitzez eraturiko izenetan, hitzen lehen letrek osatzen duten laburtzapena.

eratzeko, hau da, osagai horiek hitz soltetzat hartzea. Adibidez, RNA (**ribo**nucleic **acid**), ACTH (**adrenocorticotropic hormone**).

2 Akronimoak zer diren

Akronimoa, *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* arabera, esapide baten hitzetako lehen letrez edo silabez osaturiko hitza da.

Adibidez, COVID, radar eta ARKO hitzak akronimoak dira, coronavirus disease, radio detection and ranging eta Arrasateko Komunikabideak adierazpenak laburtuta sortu baitira. Adierazpen horietako hitz bakoitzaren lehen letra bakarrik hartu izan balitz, CD, RDAR eta AK aterako ziratekeen).

Euskaltzaindiaren Hiztegiko definizioaren arabera, ulertu behar da akronimo guztiak siglak direla; hau da, akronimoa sigla-mota bat besterik ez dela. Dena dela, akronimo hitzaren esanahia eta adierak zedarritzea ez da erraza⁵⁵. XX. mendean sortutako hitz berri bat da, eta haren osagaiak grekozko ἄκρος (akros: muturra, punta) eta ὄνυμα (onima: izena) erroak dira. Dirudenez, alemanez sortu zen, ingelesera pasatu zen gero, eta handik zabaldu zen frantsesera eta gaztelaniara, bai eta euskarara ere.

Ez ditu adiera berak hizkuntza guztietan, baina frantsesa eta gaztelania bat datoz adiera batean: akronimoa hitz moduan ahoska daitekeen sigla da⁵⁶. Hau da, silabaka irakur badaiteke, beste edozein hitz irakurtzen den bezala, akronimoa da (adibidez,

⁵⁵ Esapide baten hitzetako lehen letrez edo silabez bakarrik osatuta ez dauden beste hitz batzuei ere akronimo esan ohi zaie, hala nola *transistor* (**transfer** + **resistor**) edo Emakunde (**emakume** + **erakunde**) hitzei.

⁵⁶ *Diccionario de la lengua española*

acrónimo De acro- y -ónimo.

1. m. Sigla cuya configuración permite su pronunciación como una palabra; p. ej., *ovni*: objeto volador no identificado; *TIC*, tecnologías de la información y la comunicación.

2. m. Vocablo formado por la unión de elementos de dos o más palabras, constituido por el principio de la primera y el final de la última, p. ej., *ofi(cina infor)mática*, o, frecuentemente, por otras combinaciones, p. ej., *so(und) n(avigation) a(nd) r(anging)*.

Dictionnaire de l'Académie française

ACRONYME nom masculin. Étymologie : xx^e siècle. Emprunté de l'anglais acronym, composé de acro- et -onym, du grec onoma, « nom ».

Sigle prononcé comme un mot ordinaire. *O.N.U.* (prononcé o-enne-u) devient *ONU* (prononcé o-nu), acronyme d'*Organisation des Nations unies*. *CAPES* est l'acronyme de *certificat d'aptitude au professorat de l'enseignement du second degré*. *SIDA* est l'acronyme de *syndrome d'immuno-déficience acquise*.

BIE [Bizkaiko Ikastolen Elkarte]; silabaka ezin bada irakurri, letraka irakurri behar da, eta, orduan, ez da akronimoa (adibidez, GKE [gobernuz kanpoko erakunde]).

Akronimo hitzaren esanahia edo esanahiak zehaztea eztabaida lexikografikoa da, eta ez dagokio lan honi. Izan ere, siglaren irakurgarritasuna errazteko (edo hitz baten itxura emateko), hitz baten edo batzuen iniziala bakarrik hartu beharrean gehiago hartzen dira batzuetan (adibidez, Benelux hitza **B**elgika, **N**ederland [Herbehereak nederlanderaz] eta **L**uxenburgo hitzen lehen bi letrez osatuta dago; RENFE hitza **R**ed **N**acional de los **F**errocarriles **E**spañoles enpresaren izenetik sortu da, lehen hitzaren lehen bi letrak eta gainerako lehen letra hartuta; AFNOR hitza **A**ssociation **F**rançaise de **N**ormalisation erakundearen izenetik sortu da, lehen bi hitzen inizialak eta azken hitzaren lehen hiru letrak hartuta; ELKAR hitzaren atzean **E**uskal **L**iburu eta **K**anten **A**rgitaldaria dago), edo hitz nagusiren baten iniziala ez da erabiltzen (Muface hitza **M**utualidad **G**eneral de **F**uncionarios **C**iviles del **E**stado erakundearen izenetik eratu da, baina izenaren parte den **G**eneral adjektiboaren iniziala erabili gabe). Eraketari dagokionez, ez dira sigla, adiera hertsian, baina, funtsean, siglak dira.

Aurrerantzean, sigla hitza modu zabalean erabiliko da hemen, siglak zein akronimoak izendatzeko.

3 Sigla: laburtzapen-motarik ugariena, erabiliena eta emankorrena

Sigla da, zalantza handirik gabe, eguneroko komunikazioan presentziarik handiena duten hizkuntza-fenomenoetako bat. Dena dela, laburtzapen-mota aski modernoa da, XX. mendean sortua.

Bigarren industria-iraultza esan ohi zaionaren garaian (1870-1914) gizarte-eraldaketa nabarmenak gertatu ziren, garraioa eta komunikazioak hedatu, eta prentsa ere hedatu zen. Eta gizartean era askotako taldeak agertu ziren politikaren eta ekonomiaren arloan. Izen luze eta deskribatzailea zuten erakunde eta instituzioak sortu ziren, izendapen luzeak, eta orduan nabarmendu zen izendapen horiek murrizteko beharra.

Garai horretan hasi zen hedatzen, beraz, siglen erabilera, eta joera horrek, geroztik, ez dio utzi hazteari.

Arlo politikoan, ekonomikoan eta sozialean garatu zen hasieran; gaur egun, alabaina, zientziaren eta teknologiaren arloa dugu sigla-iturririk emankorrena. Bestalde, siglen eremu lexikoa zabalduz joan da. Hasieran, izen berezien mailako izendapenetatik sortu ziren sigla gehienak (alderdi politiko, erakunde eta instituzioen izenak, enpresa-izenak, era guztietako gizarte-taldeenak). Hala ere, izen arrunten arlora ere iritsi ziren siglak, eta, gaur egun, etengabe sortzen —eta berehala hedatzen— ari dira sigla berriak zientzia eta teknologiako kontzeptu konplexuak modu laburrean adierazteko. Sigla batzuk, gainera, oso denbora laburrean bihurtzen dira ezagun hedabideetara iristen direnean. Adibidez, VAR sigla (**v**ideo **a**ssistant **r**eferee) futbolaren arloan edo COVID sigla (**c**oronavirus **d**isease) medikuntzarenean. Hainbestearinokoa da siglen ekoizpena eta dinamismoa, non dagoeneko ez baita ezinezkoa bere osagaietan sigla bat daukan adierazpen batetik sigla bat eratortzea, eta adierazpenaren barneko sigla hari dagokion adierazpenak beste sigla bat izatea barnean, matrioxka baten gisa. Adibidez, ingelesezko CBP sigla CREB-binding protein terminoaren laburtzapena da; termino horren barnean, CREB sigla dago, zeina cAMP response element-binding terminoaren sigla baita, zeinaren barnean cAMP sigla baitago, hau da, cyclic adenosine monophosphate terminoaren sigla.

4 Siglak noiz eta nola erabili

Laburtzapen-baliabide ahaltsua da sigla, hala idaztean nola irakurtzean denbora aurrezteko balio baitu. Guztiarekin ere, testua idaztean kontuan izan behar da sigla guztiak ez direla ezagunak eta balitekeela idazlearentzat ezaguna den sigla ezezaguna izatea irakurlearentzat. Horregatik, sigla bat lehenengo aldiz agertzen denean testuan, komeni da irakurlari adieraztea zer adierazpen ordezkatzan duen sigla horrek, erabilera orokorreko sigla ezagunak direnean izan ezik. Siglaren esanahia esplizitatzeko, edo aurretik adierazpen osoa idatzi eta, jarraian, sigla ezartzen da parentesi artean, edo, alderantziz, sigla idatzi ondoren, siglaren esanahia zehazten da parentesi artean. Adibidez:

Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP)

NUP (Nafarroako Unibertsitate Publikoa)

Siglaren esanahia adierazi beharra dago, era berean, beste hizkuntza baten sigla denean (euskarazko ordaina emanaz, eta, behar izanez gero, jatorrizko adierazpena emanaz). Adibidez:

ANPE (Lanpostuetarako Agentzia Nazionala; frantsesez, Agence Nationale pour l'Emploi)

AENA (Espainiako Aireportuak eta Aireko Nabigazioa; gaztelaniaz, Aeropuertos Españoles y Navegación Aérea)

IAEA (Energia Atomikoaren Nazioarteko Agentzia; ingelesez, International Atomic Energy Agency)

5 Euskal siglak eta erdal siglak. Siglak noiz itzuli

Ortotipografiaren arloko lan honi ez dagokio zehaztea zein sigla itzuli behar den eta zein ez, kasuistika zabala baita, eta ohiturak eta arlokako erabilera guztiak ez baitatoz bat. Horregatik, irizpide orokor batzuk baino ez dira emango, joera nagusiak islatzearren.

Erakundeen siglak, batez ere herrialde jakin batekoak direnean, ez dira itzultzen, baina siglak ordezkatzan dituzten izendapenak itzuli ohi dira.

PCF (Frantziako Alderdi Komunista)

PCE (Espainiako Alderdi Komunista)

PSC (Kataluniako Sozialisten Alderdia)

CIA (Inteligentzia Agentzia Zentrala)⁵⁷

KGB (Estatuaren Segurtasunerako Komitea)⁵⁸

MIT (Massachusetts-eko Teknologia Institutua)

UOC (Kataluniako Unibertsitate Irekia)

⁵⁷ Ingelesez, Central Intelligence Agency (CIA).

⁵⁸ Errusieraz, Комитет государственной безопасности (КГБ); transkribatuta, KGB.

Enpresen siglak ere ez dira itzultzen, marka-balioa ere baitute.

IBM (International Business Machines)

BASF (Badische Anilin- und SodaFabrik)

BBVA (Banco Bilbao Vizcaya Argentaria)

EDF (Électricité de France)

Erakunde, programa eta gisakoak nazioartekoak direnean, aski ezagunak badira eta inguruko erdaretan haien siglak itzultzen direnean, euskaratu ohi dira.

EB (Europar Batasuna)

NBE (Nazio Batuen Erakundea)

EBZ (Europako Banku Zentrala)

EAP (Europako Alderdi Popularra)

NBIP (Nazio Batuen Ingurumen Programa)

NOB (Nazioarteko Olinpiar Batzordea)

Hala ere, batzuek oso sigla ezaguna dute nazioartean, ia beti ingelesezkoa; horrelakoetan, nazioartekoa erabiltzen da, auzo-erdaren jokabideari erreparatu gabe.

FAO (Nazio Batuen Elikadura eta Nekazaritza Erakundea)

Unesco/UNESCO (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea)

NATO (Ipar Atlantikoko Itunaren Erakundea)

UEFA (Europako Futbol Elkarten Batasuna)

Unicef/UNICEF (Nazio Batuen Haurren Laguntzarako Funtsa)

Izendapen arruntei dagokienez, hizkuntza bakoitzaren arabera izendatzen direnez, euskarazko siglak erabiltzen dira, hala nola BEZ (balio erantsiaren gaineko zerga; gaztelaniaz IVA eta frantsesez TVA) edo NAN (nortasun-agiri nazional; gaztelaniaz DNI eta frantsesez CNI). Dena dela, batez ere zientzia eta teknologiaren arloko testuetan, ohikoa da kanpoko siglak —gaur egun, gehienbat ingelesez sortuak— ez itzultzea, itzultzeko modukoak izan arren, eta nazioarteko forman ematea, nazioarteko uniformetasunari eustearren. Adibidez:

ABS (blokeoaren kontrako sistema)
DNA (azido desoxirribonukleiko)
RNA (azido erribonukleiko)
PCR (polimerasaren kate-erreakzio)
PVC (polibinil kloruro)
VAR (bideo-epaile laguntzaile)

6 Sigla alfanumerikoak, sigla bereziak eta elkartuak

6.1 Sigla alfanumerikoak

Zenbaitetan, alfabetoko letrez gainera, beste osagai batzuk erabiltzen dira siglak eratzeko. Batez ere, zenbakiak. Hala sortzen dira sigla alfanumerikoak.

Sigla alfanumerikoa da osaera hibridoa duen sigla bat, letraz osatutako segmentu bat izateaz gainera digituz osatutako segmentu bat duena. Digituak edo digituek edozein posizio har dezakete siglan: hasieran (letren aurretik), amaieran (letren ondotik) edo erdian (letren artean). Ohikoak dira erakunde politikoaren izenetan, enpresa edo erakunde batzuen izenetan, telebista-kanalen eta kidekoen izenetan eta era askotako data ezagunak laburtzeko, bai eta zientzia eta teknologiako izendapen batzuk laburtzeko ere. Adibidez:

A2 (Antenne 2)

ETB1 (Euskal Irrati Telebistako 1. kanala)

T5 (Telecinco; lehen, Tele 5)

MI6 (Military Intelligence, section 6)

M5S (Movimento 5 Stelle) (Italiako alderdi politikoa, 2009an sortua)

M-19 (Movimiento 19 de abril) (Kolonbiako gerrilla-mugimendua, 1974an sortua)

G20 (Group of Twenty)

G7 (Group of Seven)

I-11 (**irailaren 11**) (2001. urtean Estatu Batuetan izandako atentatuak)

M-8 (**martxoaren 8a**) (Emakumearen Eguna)

U-1 (urriaren 1a) (Kataluniako 2017ko independentzia-erreferenduma)

M-15 (**martxoaren 15a**) (2011n Espainian sortutako herritarren mugimendua)

O-23 (**otsailaren 23a**) (Espainian 1981ean izen zen estatu-kolpe saioa)

MP3 (**MPEG-1 Audio Layer III**; MPEG: Moving Picture Experts Group)

COVID-19 (coronavirus disease, 2019; zenbakiak lehen kasuaren urtea adierazten du)

3D (3 dimentsio)

5G (telefonía mugikorrekoko bosgarren belaunaldi)

W3 (World Wide Web) (zenbakiak uve bikoitzez hasitako hiru hitz direla adierazten du)

W3C (World Wide Web Consortium)

R12 (Renault 12)

IPv6 (Internet Protocol version 6)

Data laburtuak direnean, marratxoz idatzi ohi dira (M-8ko manifestaldiak, O-23ko estatu-kolpea).

Sigla alfanumerikoen antza dute errepide eta autobideen laburtzapenek ere, adiera hertsian kodeak baino ez badira ere; haien identifikatzaileak kodeak dira, eta izendapen ofiziala dute. Espainian, adibidez, marratxoa erabiltzen da letraren eta zenbakiaren artean; Frantzian, ez.

A-15 (Nafarroako autobia)

AP-15 (Nafarroako autobidea)

A63 (Euskal kostaldeko autobidea; Landetako autobidea)

AP-68 (Ebroko autobidea)

N-634 (Donostia-Santiago de Compostela errepidea)

Nafarroa Behereko D933 errepidea Nafarroako N-135 bihurtzen da muga.

6.2 Sigla bereziak

Badira sigla gutxi batzuk letrez gainera beste osagai batzuk dituztenak, beste zeinu batzuk. Adibideak:

I+G (ikerketa eta garapen)

I+G+B (ikerketa, garapena eta berrikuntza)

S&P (Standard & Poor's)

6.3 Sigla elkartuak

Sigla batzuk bi siglaren batura dira, eta marratxo batez banantzen dira bi siglak.

Adibidez:

PSE-EE (Euskadiko Alderdi Sozialista - Euskadiko Ezkerra)

JSE-Egaz (Juventudes Socialistas de Euskadi - Euskadiko Ezkerraren Gazteak)

CD-ROM (compact disc eta read-only memory)

PEPP-PT (Pan-European Privacy-Preserving Proximity Tracing)

DHKP-C (Devrimci Halk Kurtuluş Partisi-Cephesi)

FLEC-FAC (Frente para a Libertação do Enclave de Cabinda eta Forças Armadas de Cabinda)

AFL-CIO (American Federation of Labor eta Congress of Industrial Organizations)

II-HE (Iniziatiba Internazionalista - Herrien Elkartasuna)

Beste batzuetan, lurralde elebidunetako erakunde batzuek bi izendapen ofizial erabiltzen dituzte, bi hizkuntzetan, eta, batzuetan edo beti, bi horien siglak elkarrekin erabili ohi dituzte, marratxo batez elkartuak (sigla tautologikoak). Adibidez:

EAE-ANV (Eusko Abertzale Ekintza - Acción Nacionalista Vasca)

EAJ-PNV (Euzko Alderdi Jeltzalea - Partido Nacionalista Vasco)

EAJ-PNB (Euzko Alderdi Jeltzalea - Parti nationaliste basque)

IU-NEB (Izquierda Unida - Nafarroako Ezker Batua)

Horren aldaera da UPV/EHU sigla, marratxoaren ordez barra etzana erabiltzen baitu:

UPV/EHU (Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea)

Euskal sigla eta erdal sigla batera erabili behar direnean, barra etzana (/) baliatzea da logikoa, leku-izenetarako arautua dagoen moduan, eta horixe gomendatzen da izen berrietarako. Dena dela, marratxoaren erabilera aski finkatua dago sigla zahar batzuetan.

6.4 Sasisiglak

Zenbaitetan, marka, produktu edo erakunde batzuen izendapen laburtuetarako, benetako sigla edo akronimoa baliatu beharrean, gogoratzen erraza den izendapen bat asmatzen da, erreferentziatzen duen izendapenarekin erraz identifikatzen dena. Laburtzapen-mota horiek, azken batean, marka-balioa dute, eta dena delako enpresa edo erakundearen izendapen ofiziala ordezkatzeko dute, hitz gutxiagorekin. Ez dira, adiera hertsian, benetako siglak. Adibidez:

Euskalmet (Euskal Meteorologia Agentzia)

Osalan (Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea)

Termcat (Centre de Terminologia per a la Llengua Catalana)

Aeroméxico (Aerovías de México)

Euratom (Energia Atomikoaren Europako Erkidegoa)

Euskalterm (Terminologia Banku Publikoa)

7 Siglak hitzak dira (laburdurak ez)

Sigla hitz berri bat da, jatorrizko izendapenaren grafema batzuk hautatuz sortua, eta laburtu nahi den izendapen luzeago baten ordain gisa erabiltzen da. Laburtzapen grafikoa da, laburdurak bezala, baina ahoskera grafema horien antolamendutik eratortzen da, laburduretan gertatzen ez den bezala. Laburdurek ez dute existentzia fonikorik, ez dira ahoskatzen, baina siglek bai: hitzak dira, eta hitzak izateko sortzen dira: hitz-bokazioa dute. Ahal bada, beste edozein hitz bezala ahoskatzen ditugu, silabaka (EIZIE [ei-zi-e], Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarte) edo, bestela, letraka (EHU [e-hatxe-u], Euskal Herriko Unibertsitatea).

7.1 Siglak hitz eratorrietan eta hitz-elkarteetan

Siglak hitzak direnez, eratorpena eta elkarketa balia daitezke siglekin ere hitz berriak sortzeko. Ez bakarrik jada lexikalizatuta dauden sigletatik abiatuta, hala nola hies siglatik hiesdun hitz eratorria sortzeko. Lexikalizatu gabe dauden sigletatik abiatuta ere lor daitezke hitz berriak, hala nola jelkide eta jeltzale hitzak JEL siglatik (Jaungoikoa eta Lagi-Zarra), edo etakide eta etazale ETA siglatik (Euskadi ta Askatasuna); baita, inoiz, sigla letra larriz utzita ere: EIAkide (EIA, Euskal Iraultzarako Alderdia), HBzale (HB, Herri Batasuna).

Siglak hitzak dira, eta gainerako hitzak bezala elkartu daitezke hitz-elkarketa bidez.

TB-saioak, DNA-katea, erabiltzaile-IDA, DNA-laginak, CD-irakurgailua, DVD-grabagailua, CD-motak, transferentzia-RNA...

8 Siglak hitz arrunt bihur daitezke: lexikalizazioa

Erabilerak, zenbaitetan, sigla hitz arrunt bihurtzea ekar dezake. Prozesu bat izaten da. Adibidez, HIES sigla (**h**artutako **i**mmuno**e**skasiaren **s**indromea), erabiliaren erabiliaz, hitz arrunt izatera pasatu da, letra larriak galduta: hies bihurtu da, eta lexiko arrunteko hiztegiko hitza da orain, beste edozein hitz bezala. Gauza bera gertatu da, adibidez, ovni siglarekin (objeto volador no identificado / objet volant non identifié) gatzelaniaz eta frantsesez: erabat lexikalizatu da, eta letra xehez idazten da. Euskaraz, baina, haren ordaina den OHE sigla (objektu hegalari ezezaguna) ez da lexikalizatu, ez delako hain erabilia, eta nekez lexikalizatuko da, ohe hitz tradizioduna badagoelako euskal lexikoan beste esanahi batekin.

Sigla lexikalizatu ezagunak dira, halaber, ingelesetik mailegatutako laser (light amplification by stimulated emission of radiation), rad (radiation absorbed dose), sonar (sound navigation and ranging) eta radar (radio detection and ranging) hitzak edo errusierazko ГУЛАГ (Главное управление исправительно-трудовых **л**агерьей и колоний) siglatik transkribatu eta hitz arrunt bihurtutako gulag hitza. Lexikalizazioa, dena dela, nekez gertatuko da, sigla oso erabilia izanik ere, silabaka ezin bada irakurri, hala nola LSD edo UHF siglekin gertatzen den bezala.

Siglen lexikalizazioa ez da egunetik goizera gertatzen. Prozesu bat da, eta modu gradualean gertatzen da, hiztuna, sigla erabiltzearen poderioz, erabiltzen ari den hori sigla delako kontzientzia galduz joaten baita. Hala, lexikalizazioa erabat nagusitu arte, erabat letra larriz osatutako grafia (sigla hutsa, alegia) eta erabat letra xehez osatutako grafia (hitz arrunta) batera gerta daitezke erabileran, hala nola HIES eta hies.

9 Zenbat letra izan ditzake siglak?

Siglaren letra-kopurua haren jatorria den adierazpenaren hitz-kopuruaren arabera da, bai eta siglagileak sigla eratzeko hautatzen dituen letren arabera ere. Siglarik ugariak hiru letrakoak dira (AEK, EHU, BEZ, DNA...)⁵⁹, gero lau letrakoak (HABE, PSOE, EITB, AMIA)⁶⁰, bost letrakoak (ALHAO, EUDEL, IRALE, IUPAC...)⁶¹ eta bi letrakoak (SA, IP, ET, EB...)⁶². Sei letra edo gehiagokoak (HHKBPI, EAETIE, UNCTAD, UNFCCC...)⁶³ urriagoak dira; gainera, silabaka ahoskatu ezin direnak are gutxiago dira, letra asko dituzten eta hitz gisa ahoskatu ezin diren siglak nekezak baitira gogoratzeko eta ahoskatzeko.

10 Sigla berriak eratzean kontuan hartu beharrekoak

Sigla berri batek arrakasta izango badu, hau da, erraz zabaldu eta erabiliko bada, zenbait puntu hartu behar ditu kontuan siglagileak sigla eratzean:

- Ahal dela, hitz gisa ahoskatzeko modukoa izatea, silabaka ahoskatzekoa, batez ere lau letra baino gehiago baditu. Elkarren segidan kontsonante ugari dituzten siglak,

⁵⁹ AEK (Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea), EHU (Euskal Herriko Unibertsitatea), BEZ (balio erantsiaren gaineko zerga) DNA (deoxyribonucleic acid).

⁶⁰ HABE (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea), PSOE (Partido Socialista Obrero Español), EITB (Euskal Irrati Telebista), AMIA (ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak).

⁶¹ ALHAO (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala), EUDEL (Euskadiko Udalen Elkarteak), IRALE (Irakasleen Alfabetatze Euskalduntzea), IUPAC (International Union of Pure and Applied Chemistry).

⁶² SA (sozietate anonimoa), IP (Internet protokoloa), ET (Eusko Trenbideak), EB (Europar Batasuna).

⁶³ HHKBPI (Hiri Hondakinak Kudeatzeko Bizkaiko Plan Integrala), EAETIE (Euskal Autonomia Erkidegoko Teknologia Irakasleen Elkarteak), UNCTAD (United Nations Conference on Trade and Development), UNFCCC (*United Nations Framework Convention on Climate Change*).

luzeak badira, nekez atxikiko ditu gogoan hiztunak. Adibidez, HHKGPI (Hiri Hondakinak Kudeatzeko Gipuzkoako Plan Integrala), JCCNT (Joint Consultative Committee on New Technology), LMFBR (liquid-metal fast breeder reactor).

- Ahal dela, laburra izan behar du, hiru edo lau letraz osatua, sigla laburrak errazago gogoratzen baitira.
- Ahal dela, eufonikoa izan behar du, soinu-konbinazio atsegina izan behar du siglari dagokion hizkuntzan. Adibidez, hobe da hiru bokal elkarren ondoan ez gertatzea. Konparazio baterako, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen sigla, HAEE, ez da gaztelaniazkoa, IVAP, bezain eufonikoa.
- Ahal dela, ez du hitz itsusi, barregarri edo konnotazio negatiboak dituen hitz baten homografoa izan behar.

11 Siglak punturik gabe eta zuriunerik gabe idazten dira

Siglak idazteko, ez da inoiz punturik idazten letren artean, ezta dena letra larriz idatzita dagoen testu baten barnean dagoenean ere. Hori da siglaren eta laburduraren artean dagoen alde nabarmen bat: sigletan ez da laburdura-punturik idazten. Eta siglako letren artean ez da zuriunerik uzten: siglako letra guztiak bata bestearen ondoan idazten dira, tartean zuriunerik utzi gabe.

[EGOKIA] UEU (Udako Euskal Unibertsitatea); EHU (Euskal Herriko Unibertsitatea)

[DESEGOKIA] U.E.U. (Udako Euskal Unibertsitatea); E.H.U. (Euskal Herriko Unibertsitatea)

[DESEGOKIA] U E U (Udako Euskal Unibertsitatea); E H U (Euskal Herriko Unibertsitatea)

[EGOKIA] EHU ETA UEU LANKIDETZAN

[DESEGOKIA] E.H.U. ETA U.E.U. LANKIDETZAN

[DESEGOKIA] E H U ETA U E U LANKIDETZAN

12 Letra larriak eta xeheak sigletan

12.1 Letra guztiak larriz. Beti?

Printzipioz, esan daiteke sigla osatzen duten letra guztiak larriz idazten direla eta hala idazten direla, besteak beste, testuko izen arruntekin ez nahasteko. Hori da siglen bereizgarri nagusietako bat⁶⁴. Adibidez:

KPI (kontsumoko prezioen indize)

LAB (Langile Abertzaleen Batzordeak)

OLBE (Opera Lagunen Bilboko Elkarte)

NPG (nazio-produktu gordin)

UNCED (United Nations Conference on Environment and Development)

CNES (Centre National d'Études Spatiales)

ONCE (Organización Nacional de Ciegos Españoles)

Baina badira salbuespenak. Sigla gisa jaio arren, baldin eta hitz gisa irakur badaiteke, merkataritza-izen ezagun batzuetan lehen letra bakarrik idazten da larriz gaur egun, marka bihurtuta. Adibideak:

Fiat (**F**abbrica **I**taliana **A**utomobili **T**orino)

Seat (**S**ociedad **E**spañola de **A**utomóviles de **T**urismo)⁶⁵

Agfa (**A**ctien-**G**esellschaft **f**ür **A**nilin-**F**abrication)

Renfe (**R**ed **N**acional de **F**errocarriles **E**spañoles)

Talgo (**T**ren **A**rticulado **L**igero **G**oicoechea-**O**riol)

Nolanahi ere, kasu horietan dena letra larriz idatzi ezinik ez dago. Gainera, ez da beti betetzen. Adibidez, CAF euskal enpresa (Compañía Auxiliar de Ferrocarriles izena izan zuen hasieran, eta gero Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles) ez da Caf idatzi ohi, ezaguna izan arren.

⁶⁴ Ez dira nahasi behar erakunde baten sigla eta erakunde baten logotipoa. Logotipoan diseinu grafikoak agintzen du, eta zilegi da letra guztiak xeheak izatea edo batzuk bakarrik edo denak letra larriak izatea, baina logotipoak ez du siglaren idazkera baldintzatzen.

⁶⁵ Hala ere, enpresak SEAT erabiltzen du, letra guztiak larriz idatzita.

Ez dira, ordea, hor amaitzen salbuespenak. Hitz arrunt gisa —silabaka— irakur daitezkeen sigla luzeetan, larriz lehen letra bakarrik idazteko jokabidea nagusituz joan da hala euskaran nola inguruko hizkuntzetan. Horrenbestez, irizpide nagusia —letra guztiak larriz idaztea— zehaztu eta mugarritu behar da.

12.2 Letraka irakurtzen diren sigletan, letra guztiak larriz idazten dira

Baldin eta sigla eratzen duen letra-segidak osatzen duen egitura modu naturalean ahoskaezina bada, hau da, hitz moduan ezin bada modu naturalean ahoskatu, sigla eratzen duten fonemak letraka irakurri behar dira. Horrelako egitura duten sigletan, letra guztiak larriz idazten dira, luzera edozein dela. Adibidez:

ABS (Antiblockiersystem)

KPI (kontsumoko prezioen indize)

BPG (barne-produktu gordin)

BPGA (barne-produktu garbi)

UNCHR (United Nations Commission on Human Rights)

BRTA (Basque Research and Technology Alliance)

EHLG (Euskal Herriko Laborantza Ganbara)

HTTP (Hypertext Transfer Protocol)

LGTBI (lesbiana, gay, transexual, bisexual, intersexual)

OHCHR (Office of the High Commissioner for Human Rights)

HHKGPI (Hiri Hondakinak Kudeatzeko Gipuzkoako Plan Integrala)

12.3 Silabaka irakurtzen diren sigletan, luzeraren arabera

Erreferentea izendapen arrunta denean, siglak beti letra larriz idazten dira, luzera edozein dela. Adibideak:

BEZ (balio erantsiaren gaineko zerga)

ZIU (zainketa intentsiboetako unitate)

LED (light-emitting diode)

AMIA (ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak)

HIES (hartutako immunoeskasiaren sindrome)

EBIDTA (earnings before interest, taxes, depreciation, and amortization)

Lexikalizatzen badira, hau da, hitz arrunt bihurtzen badira, osorik letra xehez idazten dira. Adibidez, hies, led.

Erreferentea izendapen berezia denean, lau letraraino dituzten sigletan, letra guztiak larriz idatzi behar dira. Adibideak:

UEFA (Union of European Football Associations)

EA (Eusko Alkartasuna)

BOE (Boletín Oficial del Estado)

EGA (Euskararen Gaitasun Agiria)

EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkarte)

HABE (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea)

LAB (Langile Abertzaleen Batzordeak)

ELA (Eusko Langileen Alkartasuna)

Bost letra edo gehiago dituzten sigletan, baldin eta izendapen berezien sigla badira, siglaren lehen letra larriz idatzi behar da beti, eta gainerakoak xehez idatz daitezke. Baina osorik letra larriz ere idatz daitezke (zenbat eta luzeagoa izan, hainbat handiagoa da lehen letra bakarrik larriz idazteko joera). Adibideak:

Eizie/EIZIE (Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarte)

Irale/IRALE (Irakasleen Alfabetatze Euskalduntzea)

Ecofin/ECOFIN (Economic and Financial Affairs Council), Eudel/EUDEL (Euskadiko Udalen Elkarte)

Aenor/AENOR (Asociación Española de Normalización y Certificación)

Afnor/AFNOR (Association française de Normalisation)

Unita/UNITA (União Nacional para a Independência Total de Angola)

Unicef/UNICEF (United Nations International Children's Emergency Fund)

Imsero/IMSERSO (Instituto de Mayores y Servicios Sociales)

Unesco/UNESCO (United Nations Educational, Scientific and Cultural Organization)

Cepyme/CEPYME (Confederación Española de la Pequeña y Mediana Empresa)

Benelux/BENELUX (Belgique/België, Nederland, Luxemburg)

Muface/MUFACE (Mutualidad General de Funcionarios Civiles del Estado)

Medef/MEDEF (Mouvement des entreprises de France)

12.4 Letra xehez eta larriz osatutako siglak

Sigla batzuetan, letra larriez gainera, letra xeheren bat izaten da siglaren gorputzaren hasieran, erdian edo bukaeran. Batzuetan, sigla batetik eratorriak dira, eta letra xehea(k) eranskin gisako zerbait d(ir)a. Adibidez:

rRNA (azido erribonukleiko erribosomiko)

mRNA (azido erribonukleiko mezulari)

ETApm (ETA politiko-militarra)

PCEr (Espainiako Alderdi Komunista Berrosatua)

Beste batzuetan, letra larrien artean txertatzen da letra xehe bat, hitz nagusizat hartzen ez dena. Adibidez:

CiU (Convergència i Unió)

IoT (Internet of Things)

AfD (Alternative für Deutschland)⁶⁶

PiS (Prawo i Sprawiedliwość)⁶⁷

13 Siglak nola irakurtzen diren

Aurreko atal batean adierazi den moduan, siglak hitzak dira, eta hitzak izateko sortzen dira. Horretan bereizten dira laburduretatik, bai eta sinboloetatik ere. Horregatik, ahal

⁶⁶ Alemaniarentzako Alternatiba izeneko alderdia, Alemaniakoa.

⁶⁷ Legea eta Justizia izeneko alderdia, Poloniakoa.

bada, beste edozein hitz bezala ahoskatzen dira, silabaka (EGA [e-ga], Euskararen Gaitasun Agiria) edo, bestela, letraka (EBZ [e-be-zeta], Europako Banku Zentrala).

Hiztunak sigla irakurriko duen modua (silabaka edo letraka) sigla osatzen duten letren antolaerak erabakitzen du, baita siglaren tamainak berak ere (sigla zenbat eta laburragoa izan, hainbat aukera gutxiago hitz moduan irakurria izateko); hau da, faktore formalek erabakitzen dute. Baina ez dira faktore bakarrik, badira-eta faktore ez-fonologiko hutsak ez direnak ere: historikoak, soziologikoak eta lexikalak.

Siglak irakurtzeko, siglaren formak eskatzen duen prozedura erabiltzen da; hau da, siglaren gorputz grafikoaren irakurgarritasunak erabakitzen du irakurtzeko prozedura: irakurketa silabikoa, letrakako irakurketa edo irakurketa mistoa.

13.1 Irakurketa silabikoa

Sigla askoren egitura arazorik gabe egokitzen da euskararen silaba-egiturara, eta, horrenbestez, arazorik gabe irakur daitezke silaba-segida gisa, edozein hitz irakurtzen den moduan. Beraz, printzipioz, sigla hitz bat balitz bezala irakurtzeko modukoa bada, hala irakurtzen da edo hala irakurtzeko joera dago. Adibidez:

EIZIE [ei-zi-e] (Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarte)

OLBE [ol-be] (Opera Lagunen Bilboko Elkarte)

GAO [ga-o] (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

13.2 Letrakako irakurketa

Badira sigla asko ahoskatzen zailak, edo, besterik gabe, ahoskaezinak, euskararen silaba-egiturarekin bat ez datozelako. Halakoetan, sigla letraka irakurtzen da, letreiatu alegia, sigla osatzen duen letra bakoitzaren izena esanez. Adibidez:

GKE [ge-ka-e] (gobernuz kanpoko erakunde)

LHK [ele-hatxe-ka] (Lan Harremanen Kontseilua)

LGTBI [ele-ge-te-be-i] (Lesbiana, gai, transexual, bisexual eta intersexual)

ELZ [e-ele-zeta] (Erabiltzailearen Laguntza Zentroa)

13.3 Irakurketa mistoa

Zenbaitetan, siglak bi atal izaten ditu ahoskagarritasunari dagokionez: bata ahoskagarria da, eta bestea ahoskagaitza. Halakoetan, konbinatu egiten dira irakurketa silabikoa eta letrakako irakurketa: atal ahoskagarria silabaka irakurtzen da, eta atal ahoskagaitza letreiatu. Adibidez:

CD-ROM [ze-de-rom] (Compact Disk Read-only memory)

PSOE [pe-soe] (Partido Socialista Obrero Español)

JPEG [jota-peg] (Joint Photographic Experts Group)

PFEZ [pe-fez] (pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga)

DSBE [de-ese-be] (diru-sarrerak bermatzeko errenta)

13.4 Irakurtzeko zalantzak

Gehienetan, zalantzarik gabe erabakitzen du hitzunik nola irakurri sigla; silabaka, letraka edo bietara. Baina zalantzak ere badira, eta erdaren eragina ere kontuan hartzekoa da.

Gogorarazi behar da zein den *g* eta *j* letren euskarazko ahoskera zaindua. Adibidez, GKE sigla <ge-ka-e> irakurtzen da, eta <ge> hori ez da gaztelaniazko *general* hitzeko *ge* silaba bezala ahoskatzen [x], ezta frantsesezko *gendarme* hitzeko *ge* silaba bezala ere [ʒ], *gero* euskal hitzeko *ge* silaba bezala baizik [g]. EAJ sigla <e-a-jota> irakurtzen da, eta <jota> hori ez da gaztelaniazko *jota* hitzeko *jo* silaba bezala ahoskatzen [x], ezta frantsesezko *joli* hitzeko *jo* silaba bezala ere [ʒ], euskarazko *joare* hitzeko *jo* silaba bezala baizik [j]. Eta *c* letra ahoskatzean ere, kontuan hartu behar da zein den ahoskera zaindua. Adibidez, PCR sigla <pe-ze-erre> irakurtzen da, eta <ze> hori ez da gaztelaniazko *doce* hitzeko *ce* silaba bezala ahoskatzen [θ], euskarazko *zehatz* hitzeko *ze* silaba bezala baizik [s].

Zenbait kasu eta azpikasu daude.

- Sigla bi letraz osatuta dagoenean, kontsonante + bokal hurrenkerarekin, silabaka irakur badaiteke ere, letraka irakurri ohi da:

SA [ese-a] (Sozialista Abertzaleak; sozietate anonimo)

LO [ele-o] (lurralde-ordezkaritza; lege organiko)

MU [eme-u] (Mondragon Unibertsitatea)

- Sigla bi letraz osatuta dagoenean, bokal + kontsonante edo bokal + bokal hurrenkerarekin, letraka irakurri ohi da:

EB [e-be] (Europar Batasuna; Ezker Batua; Euskal Batasuna)

ED [e-de] (errege-dekretu)

AI [a-i] (Amnistia Internazionale)

AA [a-a] (adimen artifizial)

UA [u-a] (Unidad Alavesa)

IS [i-ese] (izen-sintagma)

AS [a-ese] (aditz-sintagma)

- Sigla hiru letraz osatuta dagoenean, bokal + bokal + kontsonante edo bokal + bokal + bokal hurrenkerarekin, letraka irakurri ohi da⁶⁸. Beste hainbeste, jakina, kontsonante + kontsonante + bokal denean:

AEK [a-e-ka] (Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea)

AEB [a-e-be] (Ameriketako Estatu Batuak)

UEU [u-e-u] (Udako Euskal Unibertsitatea)

EAE [e-a-e] (Euskal Autonomia Erkidegoa)

GKE [ge-ka-e] (gobernuz kanpoko erakunde)

FBI [efe-be-i] (Ikerketa Bulego Federala)

⁶⁸ Hala ere, baldin eta bi bokalen ondoren dagoen kontsonantea *l*, *m*, *r* edo *s* bada, zalantza egin liteke nola ahoskatu, ohikoak baitira amaieran kontsonante hori duten euskal hitzak, eta, horrenbestez, silaba gisa ahoskatzea ez bailitzateke behartua. Adibidez, EOS (Euskadiko Orkestra Sinfonikoa) letraka [e-o-ese] edo silabaka [e-os] ahoska liteke.

- Sigla hiru letraz osatuta dagoenean, kontsonante + bokal + kontsonante edo kontsonante + bokal + bokal edo bokal + kontsonante + bokal hurrenkerarekin, silabaka irakurri ohi da:

EKE [e-ke] (Euskal Kultur Erakundea)

EGA [e-ga] (Euskararen Gaitasun Agiria)

ETE [e-te] (enpresa txiki eta ertain)

ZIU [zi-u] (zainketa intentsiboetako unitate)

TAO [ta-o] (trafiko eta aparkamenduaren ordenamendu)

KAE [ka-e] (Konstituzio Auzitegiaren epai)

TIR [tir] (Nazioarteko Errepide Garraioa)

TAC [tak] (urteko harrapaketa-kopuru)

BEZ [bez] (balio erantsiaren gaineko zerga)

NAN [nan] (nortasun-agiri nazional)

- Hatxe kontsonantea bokalen artean gertatzen delarik, sigla hiru letraz osatuta egonik, letraka irakurri ohi da:

EHU [e-hatxe-u] (Euskal Herriko Unibertsitatea)

EHE [e-hatxe-e] (Euskal Herrian Euskaraz)

Sigla luzeagoetan, ordea, silabaka irakurtzen da:

IHOBE [i-ho-be] (Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa)

HUHEZI [hu-he-zi] (Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea)

- Hatxe kontsonantea bokal baten eta kontsonante baten artean gertatzen delarik, sigla silabaka irakurtzeko modukoa izanik, hatxea ez da ahoskatzen⁶⁹:

EHNE [e-ne] (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna)

EHGAM [e-gam] (Euskal Herriko Gay-Les Askapen Mugimendua)

⁶⁹ Salbuespena da EHAS sigla (Euskal Herriko Alderdi Sozialista), hatxe letra ahoskatu egiten baitzen.

EHBE [e-be] (Euskal Herriko Bertsozale Elkarte)

14 Siglak izendapen arrunt edo izendapen berezi bat ordezkatzeko

Erakunde eta instituzioen, enpresen, alderdi politiko eta bestelako taldeen, lege eta kidekoen, liburuen, programen eta kidekoen izenak izen berezien arloko izendapenak dira. Izendapen horien gunea izen bat izaten da —edo bat baino gehiago (izen arruntak edo izen bereziak)—, eta bestelako osagaiak izaten dituzte, hala nola adjektiboak eta beste. Izendapen bereziek, ohiko izen bereziek ez bezala, determinatzailea hartu ohi dute:

Euskal Herriko Unibertsitatea

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa

Era horretako izendapen berezi bat laburtzen duen siglak **izendapen osoa ordezkatzeko du, artikulua barne**, eta hala txertatzen da testuan:

EHU: Euskal Herriko Unibertsitatea (eta ez *EHUa)

Adibidez, EHU da tratamenduaren arduraduna esan eta idatziko dugu, eta ez *EHUa da tratamenduaren arduraduna.

EOS: Euskadiko Orkestra Sinfonikoa (eta ez *EOSa)

Adibidez, EOS da Euskal Autonomia Erkidegoan musika sinfonikoaren erreferentzia esan eta idatziko dugu, eta ez *EOSa da Euskal Autonomia Erkidegoan musika sinfonikoaren erreferentzia.

Gerta daiteke, halaber, siglak laburtzen duen izendapen berezia ez izatea izen-sintagma huts bat, eta, horrenbestez, artikulurik ez izatea. Ez da ohikoa, baina ez da ezinezkoa. Adibidez, Euskal Herria Zuzenean izeneko jaialdiaren sigla EHZ da, edo Euskal Herrian Euskaraz izeneko taldearen sigla EHE da. Era horretako sigletan ere, ezinezkoa da artikulua (*EHZa, *EHEa).

Siglak laburtzen duen izendapena arrunta bada, siglak **artikulurik gabeko sintagma ordezkatzeko du**. Horregatik, dagokion artikulua erantsi behar zaio, izen arruntei bezala:

BEZa (balio erantsiaren gaineko zerga)

DDTa (dikloro difenil trikloroetanoa) toxikoa da.

GEOak (genetikoki eraldatutako organismoak) arriskutsuak ote dira?

LTDa (lurreko telebista digitala)

PFEZa (pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga)

BPGa (barne-produktu gordina)

Bereizketa horrek ondorioak ditu siglek artikulua eta kasu-markak hartzeko orduan.

Siglak ordezkatzeko duen adierazpena ere letra larriz idazten da?

Siglak, oro har, letra larriz idazten dira (ikus salbuespenak 12. puntuan), baina ez da nahasi behar letra larrien erabilera siglan eta letra larrien erabilera siglak ordezkatzeko duen adierazpenean. Hau da, sigla letra larriz idazten delako ez da hortik ondorioztatu behar siglak adierazten duena ere, automatikoki, letra larriz idaztekoa denik.

Sigla baten adierazpen garatua letra larriz hasita idatziko da baldin eta izendapen berezi bati badagokio, baina adierazpen generiko bat bada, nahiz eta haren sigla letra larriz idatzi, letra xehez idatzi behar da. Adibideak:

Zein izan zen KPIa iaz?

(EGOKIA) Zein izan zen kontsumoko prezioen indizea iaz?

(DESEGOKIA) Zein izan zen Kontsumoko Prezioen Indizea iaz?

Fakturan BEZa falta da.

(EGOKIA) Fakturan balio erantsiaren gaineko zerga falta da.

(DESEGOKIA) Fakturan Balio Erantsiaren gaineko Zerga falta da.

Hezkuntza IKTen bitartez zabaltzea.

(EGOKIA) Hezkuntza informazioaren eta komunikazioaren teknologien bitartez zabaltzea.

(DESEGOKIA) Hezkuntza Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien bitartez zabaltzea.

Pasaporte edo NANA erakutsi behar da.

(EGOKIA) Pasaporte edo nortasun-agiri nazionala erakutsi behar da.

(DESEGOKIA) Pasaporte edo Nortasun Agiri Nazionala erakutsi behar da.

Elizari lotutako GKEen proiektuak.

(EGOKIA) Elizari lotutako gobernuz kanpoko erakundeen proiektuak.

(DESEGOKIA) Elizari lotutako Gobernuz Kanpoko Erakundeen proiektuak.

15 Siglek kasu-markak nola hartzen dituzten

15.1 Zeri erreparatu: siglari ala siglak ordezkatzeko duenari?

Testu batean sigla bat ikusita, irakurlearen aukera da noski sigla irakurtzea edo, baldin eta siglaren esanahia ezagutzen badu, siglak laburtzen duen izendapen osoa irakurtzea edo esatea, hau da, forma garatua berregitea. Sigla oso ezaguna ez denean edo lehen aldiz aurkezten denean, ohikoa da siglaren erreferente osoa adieraztea. Adibidez, EIA ikusi testuan baina Europako Ingurumen Agentzia esatea edo irakurtzea. Hori norberaren aukera da, eta, gainera, gerta daiteke, eta gertatzen da, aukera hori baliatzea edo ez baliatzea unearen, publikoaren edo egoeraren arabera. Aitzitik, sigla zenbat eta ezagunago eta erabiliago izan, hainbat errazago joko du hiztunak sigla irakurtzera. Horregatik, hori kontuan hartu gabe gehitzen zaizkie kasu-markak siglei testuan, siglak hitz izateko eta existentzia grafikoa ez ezik existentzia fonikoa ere izateko sortzen baitira, laburdurak ez bezala. Horregatik, siglak hitz gisa hartzen ditu kasu-markak.

15.2 Siglari kasu-marka jartzeko kontuan hartu beharreko hiru puntuak

Hiru puntu hauek hartu behar dira kontuan siglari kasu-marka jartzeko:

- Lehenik, ororen buru, siglak ordezkatzeko duena zer den, izendapen berezia (adibidez, EHU: Euskal Herriko Unibertsitatea) edo izendapen arrunta (adibidez, GKE: gobernuz kanpoko erakunde). Horren arabera, izen berezi gisa (mugatzailerik gabe) edo izen arrunt gisa hartuko dute kasu-marka.
- Bigarrenik, sigla nola irakurtzen den, letraka edo silabaka. Sigla letraka irakurtzekoa bada, beti bokalez amaitua izango da, letren izenak bokalez amaitzen baitira⁷⁰. Bestela,

⁷⁰ Zehazki, *w* letraren izena —uve bikoitz— ez da bokalez amaitzen (ez da oso ohikoa sigletan, baina ez da ezinezkoa), baina bi hitzez (izen batez eta adjektibo batez) osatuta dagoenez, izendatzean mugatzailea ezarri ohi zaio —uve bikoitza—, gainerako letren izenei ez bezala (alde batera utzita beste batzuetan uve

silabaka irakurtzekoa bada, azken silaba nola bukatzen den, gerta daiteke sigla, kasu-marka hartzearen ondorioetarako, kontsonantez bukatzea edo bokalez bukatzea.

- Azkenik, kasu-marka erantsiko zaion oinarri hori kontsonantez edo bokalez amaitzen den (horren arabera, kasu-marka batzuetan bokal epentetikoa —e epentetikoa— hartuko du edo ez), gainerako izenetan gertatzen den bezala.

Hiru puntu horiek konbinaturik, sei aukera daude:

1 IZENDAPEN BEREZIAREN SIGLA

1.1 LETRAKA IRAKURRIA

Beraz, bokalez amaitua. Bilbo hitzak bezala hartzen ditu kasu-markak:

Bilbo, Bilbok, Bilb**ori**, Bilbon, Bilbora, Bilboko, Bilbot**ik**, Bilborentzat...

EHU (Euskal Herriko Unibertsitatea) [e-hatxe-u]

EHU, EH**U**k, EH**U**ri, EH**U**n, EH**U**ra, EH**U**ko, EH**U**tik, EH**U**rentzat...

LHL (Lurralde Historikoen Legea) [ele-hatxe-ele]

LHL, LHL**k**, LHL**ri**, LHL**n**, LHL**ra**, LHL**ko**, LHL**tik**, LHLrentzat...

1.2 SILABAKA IRAKURRIA

1.2.1 Bokalez amaitua. Bilbo hitzak bezala hartzen ditu kasu-markak:

HABE (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea) [habe]

HABE, HABE**k**, HABE**ri**, HABE**n**, HABE**ra**, HABE**ko**, HABE**tik**, HABErentzat...

BAO (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

BAO, BAO**k**, BAO**ri**, BAO**n**, BAO**ra**, BAO**ko**, BAO**tik**, BAOrentzat...

bakarrik irakurri ohi dela letreiatzean, hala nola BMW ibilgailu-marka [be-eme-uve], MRW garraio-enpresa [eme-erre-uve]. Nolanahi ere, sigla ez hain ezagunetan, kontsonantez bukatutako hitza litzateke kasu-markak hartzeari dagokionez. Adibidez, HRW (Human Rights Watch): [hatxe-erre-uve bikoitz]. Beraz: HRW**e**k, HRW**e**n, HRW**e**ko...

1.2.2 Kontsonantez amaitua. Fagor edo Interpol edo Nafarroa Oinez izendapenek bezala hartzen ditu kasu-markak (e epentetikoarekin)⁷¹:

Interpol, Interpole**k**, Interpol**i**, Interpol**en**, Interpol**era**, Interpol**eko**, Interpol**etik**, Interpol**entzat**...

NUP (Nafarroako Unibertsitate Publikoa) [nup]

NUP, NUP**ek**, NUP**i**, NUP**en**, NUP**era**, NUP**eko**, NUP**etik**, NUP**entzat**...

1.3 SIGLA ALFANUMERIKOA

1.3.1 Bokalez amaitua. Bilbo hitzak bezala hartzen ditu kasu-markak:

ETB2 (Euskal Telebistaren bigarren katea) [e-te-be-bi]

ETB2, ETB2**k**, ETB2**ri**, ETB2**ren**, ETB2**ra**, ETB2**ko**, ETB2**tik**, ETB2**rentzat**...

1.3.2 Kontsonantez amaitua. Interpol hitzak bezala hartzen ditu kasu-markak (e epentetikoarekin):

ETB1, ETB1**ek**, ETB1**i**, ETB1**en**, ETB1**era**, ETB1**eko**, ETB1**etik**, ETB1**entzat**...

2 IZENDAPEN ARRUNTAREN SIGLA

2.1 LETRAKA IRAKURRIA

Beraz, bokalez amaitua. Etxe hitzak bezala hartzen ditu kasu-markak:

etxea, etxe**ak**, etxe**ek**, etxe**ari**, etxe**ei**, etxe**an**, etxe**etan**, etxe**ko**, etxe**etako**...

bi etxe, bi etxe**k**, bi etxe**ri**, bi etxe**tan**, bi etxe**tako**...

PCR (polimerasaren kate-erreakzio) [pe-ze-erre]

PCRa, PCR**ak**, PCR**ek**, PCR**ari**, PCR**ei**, PCR**an**, PCR**etan**, PCR**ko**, PCR**etako**...

bi PCR, bi PCR**k**, bi PCR**ri**, bi PCR**tan**, bi PCR**tako**...

BPG (barne-produktu gordina) [be-pe-ge]

⁷¹ 183. arauak (*Adierazpen izendatzaileen deklinabidea*) 3. puntuan zehazten du izen berezien baliokide diren baina leku-izen edo pertsona-izen ez diren adierazpen izendatzaileek, kontsonantez bukatzen badira, kontsonantez bukatutako leku-izenek bezala hartzen dituztela kasu-markak baina -e epentetikoa nahitaezkoa dutela. Hau da, Gasteizeko/Gasteizko, Gasteizera/Gasteiza..., Usurbileko/Usurbilgo, Usurbiletik/Usurbildik..., baina Fagorreko, Fagorrera eta Ederlaneko, Ederlanetik... (eta ez *Fagorko, *Fagorra..., *Ederlango, *Ederlandik...).

BPGa, BPGak, BPGari, BPGan, BPGko...

2.2 SILABAKA IRAKURRIA

2.2.1 Bokalez amaitua. Etxe hitzak bezala hartzen ditu kasu-markak:

ZIU (zainketa intentsiboetako unitate) [ziu]

ZIUa, ZIUak, ZIUek, ZIUari, ZIUei, ZIUan, ZIUetan, ZIUko, ZIUetako...

bi ZIU, bi ZIUk, bi ZIUari, bi ZIUtan, bi ZIUetako...

TAO (trafiko eta aparkamenduaren ordenamendua)

TAOa, TAOak, TAOari, TAOan, TAOko...

2.2.2 Kontsonantez amaitua. Birus hitzak bezala hartzen ditu kasu-markak:

birusa, birusak, biruse**k**, birusari, birusei, birusean, birusetan, biruseko, birusetako...

bi birus, bi biruse**k**, bi birusi, bi birusetan, bi birusetako...

BEZ (balio erantsiaren gaineko zerga) [bez]

BEZa, BEZak, BEZek, BEZari, BEZei, BEZean, BEZetan, BEZeko, BEZetako...

bi BEZ, bi BEZek, bi BEZi, bi BEZetan, bi BEZetako...

NAN (nortasun-agiri nazionala)

NANa, NANak, NANari, NANean, NANeko...

15.3 Kasu bereziak: -a letraz amaitutako siglak

Hitzei kasu-markak eranstean, badakigu juntura-lege batzuk daudela eta $a + a$ multzoak a ematen duela eta ez aa ; eta $a + e$ multzoak e ematen duela eta ez ae .

Hala, adibidez, hau betetzen da:

etxe + a \Rightarrow etxea; etxe + en \Rightarrow etxeen

alaba + a \Rightarrow alaba (*alabaa); alaba + en \Rightarrow alaben (*alabaen)

Siglaren azken letra a baldin bada, nola jokatu behar da?

Baldin eta sigla adierazpen berezi bati badagokio, ez dago arazorik, izen bereziek ez baitute mugatzailerik hartzen. Adibidez:

ELA (Eusko Langileen Alkartasuna)

ELAk, ELAren

Sigla adierazpen arrunt bati badagokio, ez dago arazorik $a + a \Rightarrow a$ egiteko. Adibidez:

RNA (azido erribonukleikoa)

Sailkatu ditzagun RNAk (Sailkatu ditzagun azido erribonukleikoak)

AA (adimen artifiziala)

AAren arloko enpresak

Alabaina, $a + e \Rightarrow e$ ezin da egin, sigla desitxuratuko litzatekeelako:

*RNen funtzioak (Azido erribonukleikoen funtzioak)

Horregatik, sigletan $a + e \Rightarrow ae$ egiten da. Adibidez:

RNAen funtzioak (Azido erribonukleikoen funtzioak)

PDA (personal digital assistant)

Telefono berriek PDAen funtzio guztiak dituzte

FA (fabrikazio aditiboa)

FAen teknologiak

Oharra: $a + e \Rightarrow ae$ egiteko salbuespen hori a letraz amaitzen diren izendapen arrunten siglei baino ez dagokie. Horrenbestez, baldin eta siglaren azken letra j [jota], k [ka], x [ixa] edo z [zeta] bada, letraka irakurtzekoa bada eta izendapen arrunt bati badagokio, jada ez dago bokalen arteko juntura-auzirik, sigla ez delako a letraz amaitzen, haren irakurketa baizik. Beraz, letraka irakurtzen diren eta amaieran beste edozein kontsonante duten siglek bezala hartzen dute hala artikulua nola kasu-marka, eta juntura-legeak irakurtzean soilik gauzatzen dira, ez grafikoki. Adibidez:

IFZ (identifikazio fiskaleko zenbaki)

Erakunde horren IFZa G125624790 da [i-efe-zeta] (eta ez *[i-efe-zeta-a])

Enpresaren IFZaren fotokopia; IFZan dagoen letra

EBJ (eguneroko bizitzako jarduera)


Pertsona horri EBJetan laguntzea da helburua [e-be-jotetan] (eta ez *[e-be-jota-etan])

ZK (zenbakizko kontrol)

Erremintaren zuzentzaileak ZKan [zeta-kan] (eta ez *[zeta-ka-an])

PABX (Private Automatic Branch Exchange; telefono-zentral automatiko pribatua)

Lehenik, linea konfiguratu behar da PABXan [pe-be-ixan] eta ez *[pe-be-ixa-an])



15.4 Pluraleko adierazpen berezien siglek kasu-markak nola hartzen dituzten

Badira zenbait sigla izendapen berezi formalki plurala baina erreferente plurala ez dutenak. Adibidez:

ARKO (Arrasateko Komunikabideak)

LAB (Langile Abertzaleen Batzordeak)

AEB (Ameriketako Estatu Batuak)

IK (Iparretarrak)

GAL (Askapenerako Talde Antiterroristak)

ET (Eusko Trenbideak)

SA (Sozialista Abertzaleak)

MGM (Mugarik Gabeko Medikuak)

Horien guztien izenak formalki pluralekoak izan arren, haietako bakoitza unitate bat da, zerbaiten talde bat da. LAB langile batzuen sindikatua da, AEB herrialde batzuek elkartuta osatutako estatu bat da, ET Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-mota batzuen jabe den enpresa bat da, MGM mediku batzuen elkarte bat da, etab. Horrenbestez, LAB sindikatu baten sigla da, AEB estatu baten sigla da, ET enpresa baten sigla da, MGM elkarte baten sigla da, etab. Hau da, izendapen berezien siglak dira guztiak. Eta, aurreko puntuan adierazi den moduan, izendapen berezi bat laburtzen duen siglak **izendapen osoa ordezkatzan du, artikulua barne**, singularra zein plurala izan. Hau da:

Euskal Herriko Unibertsitatea izeneko erakundearen sigla EHU den bezala (eta ez *EHUa), Langile Abertzaleen Batzordeak sindikatuaren sigla LAB izango da (eta ez *LABak); Ameriketako Estatu Batuak estatuaren sigla AEB izango da (eta ez *AEBak); Eusko Trenbideak izeneko enpresaren sigla ET izango da (eta ez *ETak) eta Mugarik Gabeko Medikuak izeneko elkartearen sigla MGM izango da (eta ez *MGMAk).

Eta era berean hartuko dituzte kasu-markak:

LABeko idazkari nagusia. Murrizketa salatu du LABek. LABen iritziz, ez da nahikoa.

AEBko hauteskundeak. Euskal diaspora AEBn. AEBk Nikaragua zigortu du.

ETk arratsaldean berrezarriko du zerbitzua. MGMren egoitza bonbardatu dute.

Irakurleak siglak ordezkutzen duen izendapena berreraikiko balu, dagokiona erabiliko luke, noski, singularra edo plurala:

EHUren ikerketaren emaitza nola irakurri?

[e-hatxe-u]**ren** ikerketaren emaitza / Euskal Herriko Unibertsitate**aren** ikerketaren emaitza

MGMren egoitza nola irakurri?

[eme-ge-eme]**ren** egoitza / Mugarik Gabeko Medikue**n** egoitza

AEBko hauteskundeak nola irakurri?

[a-e-be]**ko** hauteskundeak / (Ameriketako) Estatu Batue**tako** hauteskundeak

15.5 Noiz erabili behar da marratxoa siglaren eta kasu-markaren artean?

Testu arruntean, kasu-markak zuzenean eransten zaizkio siglari, marratxorik erabili gabe, sinboloetan ez bezala. Testu arruntak idazteko letra xeheak erabiltzen direnez eta siglak, berriz, letra larriz idazten direnez, oso argi zedarrituta gelditzen da zer den sigla eta zer ez, eta ez da behar, beraz, bereizte-funtzioa beteko duen marratxorik.

Argindarraren BEZaren beherapena

AEKko ikasle eta irakasleen jaia

Enpresa handiek bakarrik ez, ETEek eta autonomoek ere badituzte aukera horiek.

Erakusketan, MUko ikasleen hainbat proiektu daude ikusgai.

Ez dituzte kontuan hartu GKEen eskakizunak.

Desadostasun handiak G8ren azken bileran

Atzo MP3aren bateria hondatu zitzaidan.

Datuek erakusten dute I+Garen aldeko apustua ez dela oso sutsua.

Orobat, sigla luzea delako (bost letra edo gehiago) eta silabaka irakurtzen delako larriz hasita baina siglaren gainerako letrak xehez idazten denean, ez da marratxorik behar.

Unescoren aldarrikapenak

Beneluxeko Itzuliaren bosgarren etapa

Sigla erre letraz amaitzen denean, amaierako R hori beti gogor gisa ahoskatzen da.

Adibidez:

Azkenik, VARak epailearen erabakia aldatu du.

(VARak hitza <barrak> irakurtzen da, eta ez <barak>)

Gogoratu du COPEk eta SERek bazituztela lizentziak Iruñerrian.

(SERek hitza <serrek> irakurtzen da, eta ez <serek>)

PPren eta PAREN botoei esker, aragoiera eta katalana ez dira izango aurrerantzean Aragoiko hizkuntza ofizial.

(PAREN hitza <parren> irakurtzen da, eta ez <paren>)

Iheslariak babesteko eskatu du Nafarroako CEAREk.

(CEAREk hitza <zearek> irakurtzen da, eta ez <zearen>)

ELKAREN lana goraiatu du RPRko diputatu ohiak

(ELKAREN hitza <elkarren> irakurtzen da, eta ez <elkaren>)

Sigla erre letraz amaitzen denean eta bost letra edo gehiago dituenean, baldin eta letra larriz hasita bai baina gainerakoa letra xehez idaztea aukeratzen bada, amaierako erre letra bikoiztu egin behar da kasu-markaren bat hartzen duenean. Adibidez:

Non dago Elkar**rr**ek argitaratutako liburuen zerrenda?

Aurrekontu horretatik 240 milioi euro Feder**rr**i dagozkio.

Lurraldebusen babes-sistemak Aenor**rr**en ziurtagiria eskuratu du.

Lau urteko lanaren ondoren, Afnor**rr**ek Europako arau bat argitaratzea lortu genuen.

Dena dela, kasu batzuetan marratxoa erabiltzen da. Hauek dira bi salbuespenak:

1- Testu osoa letra larriz idatzita dagoenean, hala nola izenburuetan. Adibidez:

BEZ-AREN IGOERA

CIA-REN EZKUTUKO OPERAZIOAK

Nolanahi ere, testu barrurako irizpidea baino ez da. Adibidez, liburu baten azalean agertuko den izenburu baten kasuan, diseinuak eta estiloak ere badute zer esana.

2- Siglaren azken letra xehea denean.

ETApm-ren desegitea

GRAPOko eta PCEr-ko presoak

16 Siglak letra etzanez?

Siglak ez dira letra etzanez idazten, nahiz eta siglak ordezkatzeko duen izendapena letra etzanez idatzi beharrekoa izan. Adibidez:

OEH (*Orotariko Euskal Hiztegia*) Euskaltzaindiaren lanik garrantzitsuenetakoa da.

Euskara Batuaren Eskuliburua (EBE) 2018an argitaratu zen.

BMBn ere (*Bulletin du Musée Basque*) argitaratuak ditu zenbait lan.

Nafarroako Aldizkari Ofiziala (NAO) Nafarroako Foru Erkidegoaren aldizkari ofiziala da.

Alemanezko *Antiblockiersystem* hitza da ABS siglaren jatorria.

Letra etzanez idatziko dira, ordea, argitalpen baten izenburuaren parte badira. Adibidez:

IVAPeko estilo-liburua (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2009)

ETAren hautsa (Joseba Zulaika, 2006).

17 Sigla bi testu-lerrotan banatua

Siglak, oro har, ez dira bi lerrotan banatuta utzi behar, eta lerro-amaierako marratxoak ez da erabili behar sigla lerro batean uzteko eta siglaren kasu-marka hurrengo lerroan jartzeko.

(EGOKIA) (...) Arduradunak esan du bihar goizean argitaratuko direla HABEren azterketetara joateko (...)

(EGOKIA) (...) Arduradunak esan du bihar goizean argitaratuko direla HABEren azterketetara joateko (...)

(DESEGOKIA) (...) Arduradunak esan du bihar goizean argitaratuko direla HA-
BEren azterketetara joateko (...)

(EGOKIA) Profesionalek honako kasu hauetan aurkeztu behar dizkiote BEZaren
autolikidazioak Arabako Foru Ogasunari.

(DESEGOKIA) Profesionalek honako kasu hauetan aurkeztu behar dizkiote BE-
Zaren autolikidazioak Arabako Foru Ogasunari.

Badago salbuespen bat, ordea. Bost letra edo gehiago dituzten eta silabaka irakurtzen
diren sigletan, baldin eta izendapen berezien sigla badira, siglaren lehen letra larriz
idatziko da, eta gainerakoak xehez idatz daitezke. Era horretako siglak bi lerrotan
banatu daitezke.

(EGOKIA) Hezkuntza, zientzia eta kulturaren bidez bakea lortzea da Unes-
coren helburu orokorra.

Izendapen bereziak ez badira, letra guztiak larriz idazten dira, eta ez dira bi lerrotan
banatu behar.

(EGOKIA) Marka hautsi du; diru-sarreraren % 1,5eko igoera izan du, eta
EBITDAren igoera lortu du.

(DESEGOKIA) Marka hautsi du; diru-sarreraren % 1,5eko igoera izan du, *eta EBIT-*
DAren igoera lortu du.

18 Laburduratik siglara: sozietate-moten laburtzapenak

Laburduren atalean adierazi den bezala, laburdurak ez dira irakurtzen, haien esanahia
garatu egiten da. Baldin eta, ohituran hala finkatu delako, irakurtzen badira, laburdura
izateari utzi eta sigla bilakatzen dira. Ondorioz, punturik gabe idazten dira. Hala gertatu
da, adibidez, latinetiko *R.I.P.* laburdurarekin (*requiescat in pace*): jada ez da
garatzen, eta hitz bat balitz bezala irakurtzen da: [rip]. Horregatik, sigla gisa idatzita
ere ikusten da orain, punturik gabe eta letra etzanik gabe: RIP. Antzera gertatu da
D.F. laburdurarekin ere (distritu federala); laburdura ez, baizik sigla da, gaur egun:
DF (eta de-efe irakurtzen da).

Antzera gertatu da sozietate-motarik erabilieneekin ere. Sozietate-moten izenak laburtu nahi badira, laburdurak edo siglak erabil daitezke⁷². Erabilgarriagoa da euskaraz sigla erabiltzea, kasu-markak hartzeko erosoagoa baita sigla laburdura baino. Horregatik, sigla hauek erabil daitezke:

SA (sozietate anonimoa)

SM (sozietate mugatua)

KS (kooperatiba sozietatea)

19 Siglen erabilera arau juridikoetan

19.1 Lege, tratatu, kode eta gisakoen siglak

Arau juridiko askoren izenak sigla bidez adierazten dira, eta izendapen berezien siglek bezala hartzen dituzte kasu-markak. Adibidez:

Lurralde Historikoen Legea (LHL)

LHLren erreforma

LHLk jaso dituen eskumenak

Gizarte Segurantzaren Lege Orokorra (GSLO)

GSLOren 177. artikulua

Langabeziagatiko subsidioa GSLOn xedatuta dago.

Botere Judizialaren Lege Organikoa (BJLO)

BJLOk genero-indarkeriaren arloan egindako aldaketak

Nazioarteko eskumen judizialaren erregulazioa BJLOn

Europar Batasunaren Tratatu (EBT)

EBTren 3. artikulua Batasunaren helburuak adierazten ditu.

⁷² Hizkuntzatik hizkuntzara aldatzen da, eta hizkuntza batzuetan biak erabiltzen dira. Adibidez, *sozietate anonimo* izeneko sozietatea sigla gisa laburtzen da frantsesez (**société anonyme: SA**), alemanez (**Aktiengesellschaft: AG**) eta katalanez (**societat anònima: SA**). Gaztelaniaz, laburdura gisa erabili izan da, baina, gaur egun, sigla gisa ere erabiltzen da, eta hala onartuta dago *Ortografía de la lengua española* obran (RAE, 2010) (**sociedad anónima: S.A.** edo **SA**). Portugesez laburdura gisa zein sigla gisa erabiltzen da (**Sociedade anónima: S.A.** edo **SA** edo **S/A**). Ingelesezt, laburdura baliatzen da (**Corp., Inc.** edo **Co.**)

Kode Zibila (KZ)

KZk 1300.-1314. artikuluetan ezartzen dituen ezaugarriak

Beharrezkoa da KZko 6.3 artikulua xedatzen duena kontuan hartzea.

KZren arabera, zuzenbide erkideko lurraldean ez dira onartzen testamentu mankomunatuak.

Zigor Kodea (ZK)

Bi hilabeteko isuna ordaintzera kondenatzeko eskaera egin zuen Fiskaltzak eta ZKko 53. artikuluko erantzukizun pertsonal subsidiarioa eskatu.

ZKk arautzen du.

Gaur egun ZKn aurreikusten diren delitu pribatu bakarrak partikularren kontrako kalumniak eta irainak dira (ZKren 215. art.)

19.2 Errege-dekretu, foru-arauen eta kideko arauen izen arrunten siglak

19.2.1 Arau-moten siglak

Arau-mota askoren izenak sigla bidez adieraz daitezke. Adibidez, ED (errege-dekretu), LD (lege-dekretu), LED (legegintzako errege-dekretu), ELD (errege lege-dekretu), LDF (lege-dekretu foral), FA (foru-arau), FD (foru-dekretu) FDA (foru-dekretu arauemaile), FL (foru-lege), LO (lege organiko) MA (ministro-agindu), EBE (Europar Batasunaren erregelamendu), EBZ (Europar Batasunaren zuzentarau).

Siglak adierazten duena izen arruntezko azalpen bat denez, sigla horrek artikulua har dezake esaldietan (bestelako determinatzaileak ere bai: zenbait ED...). Adibidez:

Lege hori onetsi zuen EDa

Legeak onesten dituzten EDak

Edonola ere, ez hitzaurrean eta ez FAn, ez da esplikatzen bi izendapen horien arteko diferentzia.

19.2.2 Arau-moten siglak arau jakinetan: esaldian

Arau jakinen bat modu laburtuan adierazten denean ere, izen arrunt baten moduan erabili ohi da arau-mota adierazten duen sigla, eta, beraz, izendapen arruntek bezala hartzen ditu kasu-markak esaldian, nahiz osorik idaztean izendapen berezia maiuskulaz idatzita joango den (eta, beraz, pentsa liteke izendapen berezien sigla dela, eta,

horrenbestez, izendapen berezien moduan hartu beharko lituzkeela kasu-markak).

Adibideak:

[EGOKIA] Dekretu hori 95-01-20ko 56/1995 EDak aldatu zuen.

[DESEGOKIA] Dekretu hori 95-01-20ko 56/1995 EDk aldatu zuen.

[EGOKIA] 1367/2007 EDan xedaturiko zehaztapenak

[DESEGOKIA] 1367/2007 EDn xedaturiko zehaztapenak

[EGOKIA] 11/2021 EDaren 8. artikulua

[DESEGOKIA] 11/2021 EDren 8. artikulua

[EGOKIA] 6/2006 FAren bederatzigarren xedapen iragankorra

[DESEGOKIA] 6/2006 FAaren bederatzigarren xedapen iragankorra

[EGOKIA] 1128/2020 FAn (BAO, 2020/06/18) zehazten da nola egin behar den aurkezpen telematikoa.

[DESEGOKIA] 1128/2020 FAan (BAO, 2020/06/18) zehazten da nola egin behar den aurkezpen telematikoa.

[EGOKIA] Toki Araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen Testu Bategina onesten duen apirilaren 18ko 781/1986 LEDa.

[DESEGOKIA] Toki Araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen Testu Bategina onesten duen apirilaren 18ko 781/1986 LED.

19.2.3 Arau-moten siglak arau jakinetan: esalditik kanpo

Esalditik kanpo erabiltzen direnean, hala nola taula bateko zerrendan edo parentesi artean, zenbakiak eta siglak osatutako multzoak kode-balioa du, eta artikulurik gabe idatzi ohi da. Adibidez:

[EGOKIA] Gizarte Segurantzaren Lege Orokorra (8/2015 ED)

[DESEGOKIA] Gizarte Segurantzaren Lege Orokorra (8/2015 EDa)

[EGOKIA] Eraikuntza-proiektuek kalitate akustikoaren helburuak betetzea izango dute xede indarrean dagoen legedian (1367/2007 ED) ezarririko barne-espazioetan.

[DESEGOKIA] Eraikuntza-proiektuek kalitate akustikoaren helburuak betetzea izango dute xede indarrean dagoen legedian (1367/2007 EDa) ezarririko barne-espazioetan.

[EGOKIA] [arau-zerrenda batean] • 5/2020 FD (Kudeaketa erregelamendua)

[DESEGOKIA] [arau-zerrenda batean] • 5/2020 FDa (Kudeaketa erregelamendua)